# ttipi ttapa

425



## Baztango obretaz Florentino Goñirekin

03

Florentino Goñi zinegotziak Hiruteko Planean Baztanen akitu berri diren lanen balorazio positiboa egin du eta Oharrizko industrialde asmoa azaldu du.



## Berdintasunerako Plana Bortzirietan

04

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunerako planaren aurkezpena egin berri du.

2006ko ekainaren 29a • XXVI. urtea



SANFERMINAK 06

# Iruñean ez ezik Lesakan eta Azpilkuetan ere

# ttipi TXARTELArekin




## *ttipi-ttapa doan eta deskontuak*

## DESKONTUAK

### >> AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK

| | | |
|---|---|---|
| BERAUTO | Bera | %5 Errekanbiotan |
| ZALAIN MOTOR | Bera | %5 Errekanbiotan |
| KATEA BIKE | Bera | %5 Konponketetan |
| DATUCELAY | Elizondo | %15 Bateria eta amortiguadoretan |
| SANSIÑENA | Elizondo | %10 Olio-aldaketetan |

### >> AUTO ESKOLAK

| | | |
|---|---|---|
| SEMPER | Bera | %10 Matrikulan |

### >> ARGAZKI DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| GOIKO | Bera | %10 Karrete, errebelatze... |
| AYLA | Bera | %10 Errrebelatzea, NAN argazkietan... |
| MENA | Doneztebe | %10 Errrebelatzea |
| MENA | Elizondo | %10 Errrebelatzea |
| ZALDUA | Doneztebe | %10 Produktuetan |
| ZALDUA | Elizondo | %10 Produktuetan |

### >> ARROPA DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| EDURNE | Bera | %5 ( 30€ tik goiti, eskura ord. ) |
| J.J. PICABEA | Doneztebe | %10 Galtza-marka batzuetan ez |
| KATTALINGORRI | Elizondo | %10 |
| IPINGI | Elizondo | %10 ( 30€ tik goiti ) |
| FANTXIKE | Elizondo | %10 ( 30€ tik goiti ) |

### >> BITXIDENDAK

| | | |
|---|---|---|
| ETXARTE | Lesaka | %10 Bitxietan |

### >> ETXETRESNEN DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| ALTZURI | Lesaka | %5 Etxetresnetan |

### >> ESTETIKA ZENTRUAK

| | | |
|---|---|---|
| AMAIA | Doneztebe | %5 Kosmetikan (30€ tik goiti)<br>%10 Erregalo artikuluetan.<br>Merkealdietan ez |

### >> KIROL DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| IPARLA KIROLAK | Elizondo | %8 (30€ tik goiti) |
| ZELA KIROLAK | Bera | %5 |
| AGARA KIROLAK | Bera | %5 Kirol artikuluetan |
| BIXKIAK | Lesaka | %10 Kirol artikuluetan |

### >> LENTZERIAK

| | | |
|---|---|---|
| MARICRUZ | Doneztebe | %10 (30€ tik goiti) |
| DEÑE | Lesaka | %10 Lentzerian |
| MARICRUZ | ELizondo | %10 (30 € tik goiti) |

### >> LIBURU DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| NAFARPRESS | Elizondo | %10 Liburu eta ikas materialetan<br>Testuliburu eta bideoak ezik |
| MAIMUR | Leitza | %10 oparitzeko artikuluetan |

### >> OPTIKAK

| | | |
|---|---|---|
| OSTARGI | Bera | %10 (30€ tik goiti) |
| ARGIBEL | Elizondo | %10 anteoju graduatuetan |
| ARGIBEL | Doneztebe | %10 anteoju graduatuetan |

### >> PENTSUAK

| | | |
|---|---|---|
| MENDAUR | Doneztebe | %5 Zakurrena, katuena... |

### >> TINDATEGIAK

| | | |
|---|---|---|
| JAIONE | Doneztebe | %10 (12€ tik goiti) |

### >> ZAPATADENDAK

| | | |
|---|---|---|
| KALOTXA | Bera | %5 (18€ tik goiti) |
| OSTIZ | Doneztebe | %10 |
| TXINELKA | Lesaka | %10 |

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK**
**saltzen dituen txartelak erosiz,**
**gauza aunitz lor ditzakezu:**
**ttipi-ttapa lagundu,**
**eskualdeko dendak bizkortu**
**eta erosketak merkeago egin**

***Informazio gehiago:***

***✆ 948 63 54 58***

## DATUAK...

**• Baztango Herriian eta industria zinegotzia da Florentino Goñi, EAko zinegotzia. Oronoz-Mugairiko alkatea izan da hameka urtez.**

**• 2001-2004 Azpiegitura Planean hainbat lan egin dira Baztanen. Balorazio positiboa egin du, baina 2005-2008 Planean hainbat lan eginen direla ere aipatu digu.**

**• Oharrizen 35.000 m²ko eremua prestatu nahi du Udalak lantegiak jartzeko: «aireporturik ez bada, abioiek ez dute aterrizatzen» dio.**



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Florentino GOÑI** *Baztango Herrilan eta Industria zinegotzia*

# «Inaugurazioak egitea da errazena, baina horrek mantenua eskatzen du»

Aitor AROTZENA

**2001-2004 Azpiegitura Planeko lanak akitu berriak dituzue. Zer balorazio egiten duzu?**

Bi zatitan egin da. Lehendabizikoa, Elizondoko zeharbidea izan zen. 2.170.000 euro gosta zen eta Mariezkurrenak egin zuen. Bigarren zatia Navasfalt-ek hartu zuen, 5 milioi euroko aurrekontuarekin. Hemen uren saneamendua, zolaberritzea, argia, gasa eta karrikak moldatzea sartu da. Aniz, Iruritako Apote auzoa, Elizondo ekialdea, Elbete, Erratzu eta azkenekoa, Amaiur, ekainaren 27an akitu dena. Ez dugu desfase haundirik izan adjudikatutako preziotik azkenean ordaindu denera, %10 horretan sartu gara. Eskertzekoa da alkate-jurado-ek egin duten lana. Balorazioa hagitz positiboa da.

**Planetik kanpo ere zenbait lan egin behar izan dituzue...**

Baztanek bide kilometro aunitz ditu, Nafarroako gehiena, baina biztanleetan ez gara lehenbizikoak eta subentzioak bizilagunen arabera ailegatzen dira. Gainera, UPNko gobernuak errentagarritasun politikorik handiena duen lekuetan egiten ditu inbertsioak, hori garbi erran beharra dugu. Halere, berriki brea eman dugu toki auniztan. 300.000 euroko inbertsioa egin dugu horretan. 178 argi-farola ere jarri dira herri ezberdinetan. Bideak eta argiak egin ditugula aipatzearekin, bakarren batek erranen du, "eta niri noiz tokatzen zait?". Pixkanaka aitzinerat eginen dugu, nahiz eta denetara ailegatzea posible ez den. Errazena eta politena inaugurazioa izaten da, zinta moztea, baina hori ez da dena. Azaroak biharamonean hasten dira, mantenimenduak eskatzen baitu lanik handiena.

**«UPNko gobernuak errentagarritasun politikorik handiena duen lekuetan egiten ditu inbertsioak, hori garbi!»**

**Orai hurrengo Planera begira, zein egitasmo dituzue?**

Baztanek aldaketa handia egin du duela urte batzuetatik honat. Elizondok buelta handia eman du, ez bakarrik zeharbidea. Hurrengo plan honetan falta diren herrian sartu ditugu. Arizkun, Arraioz, Oronoz-Mugairi eta Almandoz sartuko dira, 3 milioi euro hurbileko aurrekontuarekin. Nafarroako Gobernuan eta Balleko Udalean onartuak daude, lehiaketara atera nahi dugu proiektua eta lan batzuk aurten hasiko dira. Elizondoko plaza ere moldatu behar da. Lekaroz eta Gartzaingo frontoiak sartu ditugu; Arizkungo frontoia ekainaren 16an inauguratu zen... Gauza aunitz eta garrantzitsuak egiten ari gara. Egia da kontribuzioa aunitz igan zela, baina duela hamar urtetik ukitu gabea zegoen, horregatik urtez urte egin balitz baino gehiago somatu da igoera.

**Baztanen industria azkartzeko egitasmo berezirik baduzue?**

Gure betiko asmoa izan da industria jartzea Baztanen, baina ez da erraza. 35.000 metro koadroko lur-eremu aproposa harpatu genuen Oharrizen, Baimenak lortzeko buelta aunitz eman ditugu, baina momentu honetan aitzinera goazi eta hurrengo legealdirako dena prest utzi nahi dugu. Industrialdean ez ditugu almazenak nahi, lanpostuak sortuko dituzten lantegi ttiki-ertainak baizik.



Argazkiak: Aitor AROTZENA
**Mikel Saralegi, Idoia Aranaz, Marisol Taberna, Patxiku Irisarri, Deñe Abuin eta Igor Portu, Bortzirietako Berdintasunerako Planaren aurkezpenean, ekainaren 15ean.**

## BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN ESKUTIK

# Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako plana aurkeztu da

**Bortzirietako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lehendabiziko planaren aurkezpena egin zuten ekainaren 15ean Etxalarko Kultur Etxean. Duela bi urte, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eskualdeko emakumeen egoera soziala aztertu zuen, jorratu beharreko lan ildoak finkatzeko. Orain, Nafarroako Emakumearen Institutuaren laguntzaz, Berdintasunaren aldeko Plana onartu du. Aurkezpen ekitaldian, Mikel Saralegi eta Igor Portu, Gizarte Zerbitzu mankomunitateko teknikariak; Idoia Aranaz, Isos Aukera Berdintasunerako Zerbitzuetako ordezkaria; Patxiku Irisarri Mankomunitateko lehendakaria eta Marisol Taberna eta Deñe Abuin, Bera eta Lesakako zinegotziak izan ziren.**

**Aitor AROTZENA**

Mikel Saralegik, Berdintasunerako Planaren historia laburra egin zuen. Azken hamarkadetan aldaketa ikusgarriak izan badira ere, oraindik ere emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak badaudela azpimarratu zuen: *«Azken hamarkadetan aldaketa ikusgarriak gertatu dira, esate baterako emakumezkoen presentzia nabaria lanean eta bizitza publikoan. Baina aurrepauso horien azpian emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak diraute: Munduan barrena pobreziak, analfabetismoak, biolentziak… emakumeak harrapatuak dituzte nabarmenki. Aldi berean, emakumezkoak esparru publikoan sartu badira ere, gizonezkoek ez dute modu berean egin esparru pribatuan. Familia-zamak emakumezkoen ardura dira oraindik. Hezkuntza-mailetan estereotipo sexistak erreproduzitzen dira eta, familietan ere, berdintasunekoak ez diren balioak trasmititzen ditugu. Modu berean, emakumezkoek nagusiki betetzen dituzten lanbideek prestigio gutxiago izateaz gain, baldintza eta soldata kaskarragoak jasaten dituzte. Aurreko datuek eta gehiagok erakusten dute sistema patriarkala indarrean dagoela, hau da, sexuaren arabera banatutako balio maskulinoak femeninoen gainetik daudela».*

**«Emakumeentzat ez dago aukera berdintasunik»**

Duela bi urte Bortzirietako emakumeen artean egindako azterketaren ondorio nagusiak ere aipatu ziren prentsaurrekoan. Horren arabera, etxetik kanpo aritzen diren emakume gehienek (%82,7) zerbitzu pertsonaletan, ostalaritzan eta merkataritzan lan egiten dute. Lehentasuna ematen diote Bortzirietan ginekologia eta familia plangintzako zerbitzu bat izateari eta premia horren ondotik daude lana, garraioa eta etxebizitza. Emakumeen %70,5aren ustez, emakumeentzat ez dago aukera berdintasunik.

Datu hauek ikusiz, Bortzirietako Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako lehenbiziko plan honen helburua Bortzirietako eragileei berdintasuna helburu duten konpromiso pertsonalak zein kolektiboak, jarduerak, ekintzak eta ekimen guztiak norabide berean jartzeko marko bat eskaintzea da. Honela, plana garatzeko bi estrategia proposatzen dira: Alde batetik, emakumezko eta gizonezkoen artean, lanari, familia-zamen banaketari, kale eta plazen diseinuari eta kirol praktikari dagokienez, dauden desberdintasunak ezabatzeko joera duten ekintza positibo jakinak eta zehatzak diseinatzea; eta bertzetik, genero ikuspegia Bortzirietan aurrera eramaten diren politika, eremu eta ekimen guztietan.

Idoia Aranaz, Isos Aukera Berdintasunerako Zerbitzuetako ordezkariak planaren nondik norakoak azaldu zituen eta nazioarteko erakundeek ematen dituzten ildoei heltzen diela aipatu zuen.

## BORTZIRIETAKO UDALETAN ONARTUKO DEN MANIFESTUA



Artxiboa

**Familia-zamak emakumezkoen ardura dira oraindik.**

Bortzizietako udaletan onartzeko berdintasunaren aldeko manifestua aurkeztuko da. Idatzian ageri denez, emakumeak eta gizonak bizikide bagara ere, ez gara berdin bizi. Oraindik badira emakumeen nortasunaren garapena eta beraien parte hartze aktiboa eragozten duten jarrerak eta horregatik, sei helburu nagusi izanen ditu Berdintasunerako Planak:

1. Herritarrok desberdintasunaz kontzientzia hartu eta aldaketaren garrantziaz eta beharraz jabetu gaitezen.
2. Neurri zehatzak har ditzagun sexudiskriminazioari aurre egiteko orduan.
3. Emakumeek euren eskubideen nahiz aukeren berri izan dezaten.
4. Emakumeen kopurua handitu dadin gure herriotako bizitza sozialaren alor guztietan.
5. Gure artetik, tratu txarrak ezaba ditzagun; eta 6. Gizonen eta emakumeen artean lana banatu dezagun hala kalean nola etxean.

Patxiku Irisarri, Gizarte Zerbitzu Mankomunitateko presidenteak aipatu zuenez, plana gizarte osora hedatzeko asmoa dute eta horretarako baliabideak jarri beharko direla gogoratu zuen: «*Aunitzetan horrelako planak aurkezten ditugu, baina hemen bistan da hauek aitzinera ateratzeko baliabideak jarri beharko direla. Udalek, behar bada hurrengo urteetan esfortzu handi bat egin beharko dute gai hauek aitzinera ateratzeko. Ez bakarrik udalek, baita bertze erakundeak eta Nafarroako Gobernuak ere badu zer erran eta baliabideak jartzeko konpromisoa hartu behar du, Gu geuk nahiko mugatua izanen baitugu, diru aldetik hau aitzinera ateratzea*».



## Idoia ARANAZ *Isos Aukera Berdintasunerako Zerbitzuak*

# *"Plana aitzinera ateratzeko baliabideak izateko apostu politikoa egin behar da"*

**Zein arlotan gauzatu nahi duzue Bortzirietako Berdintasunerako Plan hau?**

Plan honen iraupena lau urtekoa izanen da eta hamar arlotan egituratuta dago: kultura, kirola, hezkuntza, enplegua, berdintasun politiken ardura duen arloa, osasuna, zerbitzu orokorrak, gizarte-zerbitzuak, hirigintza eta biolentzia. Plana aitzinera ateratzeko baliabide ekonomikoak nahiz pertsonalak izateko apostu politikoa egitea nahitaezkoa iruditzen zaigu, baita gizarte eragileekin kontsentsua lortzea ere. Aukera berdintasunerako teknikaria izatea ere ona litzateke.

**Zein da planaren helburu nagusia?**

Planaren helburu estrategikoa, bizitzaren arlo ezberdinetan Bortzirietako gizonen eta emakumeen partehartze orekatua lortzea da, genero ikuspegia barneratuz. Udal eta Mankomunitateko teknikari eta politikariendako formakuntza berezia egin nahi dugu, aukera berdintasun printzipio hori integratu ahal izateko eta pixkanaka hizkuntzaren erabilera sexista ezabatzeko.

**Plana aitzinera ateratzeko elkarrizketa batzuk ere egin dituzue...**

2004an egindako diagnostikoa oinarritzat hartuz, teknikari, politiko eta gizarte eragileekin 17 elkarrizketa egin ziren, 6 gizaseme eta 11 emakumeri. Inplikazio handia somatu genuen.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 30 € |
| Espainia | 30 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 50 € |
| Europa | 50 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 25 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Hago lo ta janen duk me!

Ta nunbatt astua makilara bezala, gizakiok ere itten gara.
Lehen ere, eskutitz hunen gisako bat eskribittu nun. Oaintxe bezala, ez nun espero inoren aburua aldatzerik, ta oain ere ez, hortaz, lasai nago bazterrak nasiko ezttutelakun, biño gustuko dut hitzez bedere pixkot saltsatzia. Gaia ezta berria, gure Nafarroako Gobernu mattia, ta ondorioz, bertan, bakotxak bere itxin bezala agintzen duen UPN izeneko lagun talde ta alderdi politikua. Beldurrezko edo irrimangarrizko historio hunen bertze protagonista, nola ez, gu. Egia, gu nor garen azaldu biarko, "iruñetik gottiko" bigarren edo hirugarren kategoriko nafarrak, UPNri botua eman nahiz eman ez diotenak, biño apuak iresteko ere gaitasuna dugunok.
Historioaren gertalekua, Doneztebetik Labainera doaien NA-4040 izeneko errepidia edo astobidia. Sikira astopista balitz ere, bere peaje ta guzi...
Hoixe ba, hemen gaude bide hori egunero ibiltzen dugun pazintzi haundiko barridik, aspalditik, noizpatt konponduko dutenaren itxaropenaz. Euskaldunak nunbatt hola gara, espetzen dakigunak, ixilik gañera, baita zintzo sinesmen hori bete.
"Tercer Plan Director de Carreteras" deitzen den egitasmuan, karretera hau konpontzeko asmoa agertzen da, are geigo, proiektua aspaldin iña zagon, ta oain dela bi urte lanak akittuak bihar zuten, 1,2 miloi euroko xox mukurutxukin. Hara nun, bi urte pasako atzerapenaz, lanak hasteko omen daude, biño, arraiua, diru gutti xamar nunbatt Mugaireko mantenimendu zentrun, (n121 majo moldatu baitute, eztala?), negu gogorra lubizi ta guzi, ta oain dirurik aski ez. Nere burugogorkerin ondorioz jakin dutenaren arabera, Urrotzeño bertzerik eztute konponduko, galipota bota alegia, ta porlanazko kunetak, nahiz ta proiektun sartuak egon, auskalo, kusi biarko aurten Migeltxo Sanzek oporretan zenbat diru gastatzeko asmua dun. Hori bai, Senda Viva bezalako ergelkerirako edo Sadar futbol belagiari izena aldatzeko, baita Xabierko Prantzesen jaiotze urtemugan xox pila galantakak xautzeko edo Baluarten jauntxo, haundimaundi, ta entxufatuen elkarretaratze ta pintxo jatiak antolatzeko bada dirurik. Etzakit alajaina, igual hori duk bide zuzena, ta ni ardi beltza!
Bo, guk bittartin segi dezagun hunara bialtzen dizkiguten ogi papurrekin gozatzen, bai, inguruko turismua sustatzeko ta holako memelokeriak subentzinatzeko laguntzei aozabalik begira.
Ta man botua lasai UPNri, gaztelarezko erraera zarrak hala baitio: "Mas vale malo conocido, que mucho peor por conocer" (ni zerbatt aldatzera ausartu naiz). Hori hemen badakigu ongi itten: gauden ixilik portzikaso, ez al digute dugun pixar hori ere kenduko!
Gure mutur aintzinin jana kentzen digute, ta irrifar maltzurrakin alde itten dute, zeinen inozuak garen haien artin aipatuz. Agur ta ohore, erdaraz mintzo diren trajedun jaun-politiko-espabilatu-lapurrei!

**Joseba URROTZ**

## Leihotik begira

Etxean ginelarik, golpe baten hotsa entzun genuen. Haizea ufaka zebilen, kontraleihoa izan zelakoan, balkoira ateri ginen eta errepidean, gure etxepean, ikusi genituen gizon bat eroria eta bere motorra alboan botata. Istripua izan zen zaratarena. Bat batean dena isila zen, istripu baten uneko hutsaren isil gor eta tentsua. Dena geldirik, giza mugimenduaren zurrunbiloa zintzilik. Segituan joan ziren gizona laguntzera. Zorionez ez zen gauza grabea izan.
Gure etxea Bidasoa karrikaren erdi aldean kokatua dago. Goizero, gure haurra eskolarantz bizikletaz abiatzen denean, sukaldeko leihotik begiratzen diogu, bere ibilbidean babesa eskaintzeko nahian, han bertan, errepidean, kotxe, kamioi, motor edo autobusen artean eguneko indar berrituaz doala. Babesa eskainiz, egunerokotasunaren mugimendu zaratatsuaren artean deus txarto gerta ez zekion. Gero, anitzetan, arratsaldetan, eskolatik heldu behar den tenorean, gure begi kezkatuak leihotik so daude itzultzeko bidean gure haurra agertzeko une goxoari.
Istripuak gure bizi bidearen gertakizun saihets ezinak omen dira, ezinbertzekoa. Ni hemen horrelako gertakizun baten notizia ematen ari naiz, beti istripuek pentsa arazten baitigute. Aldi honetan, goizero eta arratsaldero datozkidan burutazioak aldarrikatu nahi ditut aldizkari honek idazteko ematen didan aukera hartuta. Bera, gure hiri-herria, ez da gizakientzat egina, baizik gizakien makinetarako. Gure kaleetan ez dago lasaitasunez paseatzeko espazio edo espaloirik, ez dago espaziorik umearen kotxekapota edo silatxoarekin paseatzeko, ez dago bizikletaz lasai edo Turmaletekin amesten ibiltzeko autoek errespetatzen duten bide koloretsurik, ez dago auto gidarien fitipaldi gogotsuak murrizten dituzten ez trafiko seinalerik, ez konkorrik, ez tatxuelarik....
Gogoa badut bai dagoela erran eta aldarrikatzeko... Orduan, noizko oinetako espazioa? noizko haur, gazte eta helduak goxoz egoteko parke handia? (nire etxe parean terreno pila dago, nahiz inmobiliariak eta udalak bertze gogoak izan...). Noizko autoen abiadura mugatzen dituzten benetako neurriak? Noiz berklasifikatuko dute pasealekutzat Agaratik Altzaterantz doan errepidea, orain den autopista izaten segi ez dezan? Noiz, eta zenbat aldiz noiz?
Boterean daudenen ardura da hau dena, edo izanen da, guretako bakoitzak bizitzaren aldera jarduera argia izanen dugunean. Bake garaian gaudenez, pentsa ahal dugu bortizkeria ez dela bakarrik pistolena, baita ere dela gure bizimoduarena, anitzetan, esklaboak menpetasunean ohitzen diren moduan, gu ohitzen baikara edozein modutan bizitzera, nahiz sakonean ados ez izan. Aldaketa garaia dela, hasi gugandik aldaketa egiten. Halaxe!

**R.A.M. Gure Izarretik**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •




D.NOTICIAS 2006-06-16

*«Ahalik eta hobekien egiten saiatu naiz, nere karguak dituen mugen barrenean. Zerbaitetaz harro baldin banago, laister Almandozko haurrek behar eta merezi duten eskola izanen dutela, horretxetaz harro nago».*
*«Almandoz da Balleko atea Iruñetik etorriz eta guttik dakite igual 40.000 bisitari hartzen ditugula urtean, Beolari esker. Balleko herri tailen etorkizuna da gehien kezkatzen nauena».*

**Luis ROLDAN**
Almandozko alkatea
D. Noticias 2006-06-16

*«Gaurko egunean urak daukan tenperaturarekin, eta euririk egiten ez badu, harrapatu eta berriz uretara itzultzen den izokinak bizitzeko hagitz aukera gutti ditu. Normalena, infekzioren bat hartzea eta errekan hiltzea da. Beti defendatu dugu arrantza denboraldia uztail hondarrean erabat ixtea. Ez bada horrela egiten, izokinaren kalterako izanen da eta hori teknikariek jakin beharko lukete».*

**Jose Mari GAINZA**
Berako arrantzalea
D. Vasco 2006-06-16

## • 11 GALDERA LABUR •

**Iaz eta aurten Sanferminetako kartel lehiaketa irabazi duzu. Espezialista bihurtzen ari zara?**
Inoiz ez naiz kartel egile espezialista izan, beraz nere «sen artistikoan» eta batez ere nere sen bestazalean oinarritu naiz kartel «ona» egiteko.

**Bietan dantzariak erabili dituzu. Ezpatadantzaririk gabe bestarik ez**
Ezpatadantzaririk gabe ez dago Sanferminik… eta batez ere lesakarrentzat berexia da emozio punttu hori.

**Programaren azal lehiaketa ere irabazita, 1.000 euroko sariekin, tragoak gonbidatu beharko dituzu?**
Baten bat seguru baietz, baina konpromiso batean jarri didazu, orain publikatutakoa borratzeko beranduegi da.

**San Fermin eguneko dantzak, Tantirumairu dantza taldekoak edo plazako Muxikoak?**
Denak! Kuadrilan dantza faltarik eztut, ostatuan, txarangarekin, plazan edo frontoian.

**Peñen egunean, errekara sartzen zara oraindik?**
Azken urtetan ez naiz sartu (ez didate bota). Plazan ederki bustita egoten naiz eta errekara ailegatzean ostatuta joaten gara zuzenean.

**Bartzelonan Arte Ederrak ikasiz, herriminik sentitzen duzu?**
Hango lagunak aspertuta daude nerekin, beti Lesaka gotti eta betti, beraiek erantzuterik bazuten…

**Bestetarako, Kataluniako kaba edo Euskal Herriko sagardoa?**
Biek badaude hobe! (ez diot boikotik eginen produktu nazionalei).

**Beti Gazterekin futbolean aritzen zineneko zer oroitzapen dituzu?**
Hasierak gehienetan dira zailak, baina oroitzapen bikainak ditut: hondartzako partidak, 18-0 galtzen genueneko garaia, afariak…

**Zu joan eta Gipuzkoako Kopa irabazi dute aurten. Inbidiarik?**
Pixko bat bai, baina kontsolazioa geratzen zaigu… norbaitek hasi behar zuen baloia ostikoka hurrengo generazioak kopa irabazi ahal izateko ez? jaja! Pozten naiz, aupa neskak!

**Sanferminetan zein musika talde aditzea gustatuko litzaizuke?**
Pantxo ta Peiotik hasi, Kuraiatik pasa eta txarangaraino!

**Uztailaren 11. Bestondoa etxean edo Iruñeko Sanferminetan?**
Biek probatu ditut eta aukera bada, gustora segituko dut painuluarekin Iru-



**Irantzu PASTOR**
***Lesakako Sanferminetako kartel lehiaketako irabazlea***















KULTURA

# 90 lan baino gehiago aurkeztu dira Bidasoaldeko Filme Laburren Zinemaldira

## Ana Villoria iruritarrak irabazi du bederatzigarren edizio honetako kartel lehiaketa

**ttipi-ttapa**

Irailaren 4tik 15era eginen den Bidasoaldeko Filme Laburren IX. Zinemaldira 94 lan aurkeztu dira. Azken urteetan bezala, Elizondon, Beran, Donezteben eta Hendaian eskainiko dira filmeak, baina aurten, baita Lesakan ere. Zinemaldiaren itxiera jaialdia eta sari banaketa ekitaldia Hendaiako Cinema des Varietes aretoan eginen da irailaren 15ean.



ARGAZKIA ALICIA DEL CASTILLO

**Andres Etxenike Bertizko Partzuergoko presidentea eta Carlos Garaikoetxea eta Deñe Abuin, Baztan eta Lesakako zinegotziak, aurkezpenean.**

### Urrezko Iratzea eta 4.000 euro filme onenari

Aurtengo edizioan zenbait berrikuntza izanen dira. Honela, omenaldia eskaini nahi zaio Pio Baroja idazleari, bere heriotzaren 50. urtemugan. Bertze aldetik, lehenbiziko bi sariei dagokien diru kopurua ere igo da. Honela, filme onenak Urrezko Iratzea eta 4.000 euro eramanen ditu (3.000 euro irabazi ditu orain arte); bigarren saria, Zilarrezko Iratzea eta 2.000 eurokoa izanen da (1.500 euro lehen); eta Brontzeko Iratzeak eta 1.000 euroko sariak izanen ditu gai naturalistak edota giza baloreak hobekien jorratzen dituen filmak; animazioko lan onenak; Akitania edo Nafarroako zuzendari batek egindako lan onenak; euskaraz egindako filme labur onenari eta aktorerik onenak; diru saririk gabeko bertze bi aipamen ere izanen dira: publikoaren saria eta argazki onenarena.

Aurtengo edizioaren aurkezpenean aipatu zutenez, joan den urtean Urrezko Iratzea irabazi zuen Alex Pastoren «La ruta natural» filmeak, Sundanceko Jaialdi famatuaren lehenbiziko saria ere eskuratu zuen. Modu berean, Bidasoaldeko Filme laburren Zinemaldian lanak aurkeztu dituzten zuzendari batzuk luzemetraiak egiten ere hasiak dira, Mateo Gil edo Koldo Serra, errate baterako.

Zinemaldia eskualdean zinea hedatzen laguntzeko ere baliagarria izanen dela uste dute antolatzaileek. Izan ere, aurten hiru luzemetraien errodaia lanak hartu ditu Bidasoaldeak: Pablo Malo donostiarraren «La sombra de nadie», Miguel Angel Calvo Buttini tuterarraren «El lunar» eta irailean filmatzen hasiko den bertze filme bat.



### «Corten»

Ana Villoria iruritarrak egindako «Corten» kartelak iragarriko du aurtengo Zinemaldia. 500 euro eskuratu ditu lanaren truke. *«Hautsitako bonbillak, filme laburrak egiterakoan izaten diren arazoak adierazten du, diru eta baliade gutti izaten baitira».*












BERA

# Gure Txokoaren 75. urteurrena ospatuko da uztailaren 1ean

## Gure Besta Eguna prestatu da

Amaia eta Ainhoa

Aurten Gure Txokoa Elkarteak 75 urte betetzen dituenez, uztailaren 1ean Gure Besta Eguna ospatuko da. Hainbat ekitaldi antolatu da egun berezi honetarako. Goizeko ekitaldiak haurrentzako izanen dira batez ere: 10:00etan haurrendako Gure Krosa, 11:00etan bizikleta jokoa eta 11:30ean Gure Txokoako dantzariekin haur jokoak izanen dituzte. Eguerdiko 12:00etan, aldiz, Gure Txokoako futbol jokalari ohien topaketa izanen da, lamotenean argazki erakustaldiarekin. Herri bazkari mundiala ere antolatu dute. Hau 14:00etan hasiko da eta ondoren DJa, Gure ostatua, zozketak eta bertze hainbat gauza izanen dira. Eta eguna akautzeko, 21:00etatik 23:00etara denak Errekaldera! Bertako kontsumizioen irabaziak Gure Txokoari emanen zaizkio. Urteurrenaren inguruko ospakizunei akabera emateko, uztailaren 2an Altzateko elizan meza entzun ahal izanen da.

### Makildantzari ohien topaketa

Berako bestetan dantzatzeko asmoz, Berako dantzari ohiak elkartu eta ortziralero entsaiatzen ari dira 20:00etatik aintzinera Altzateko frontoian. Uztailaren 30ean, entsaioen azken egunean, bazkari ederra egiteko asmoa dute. Antolatzaileek, taldeak osatu eta bazkaria antolatu ahal izateko, uztailaren 10a baino lehen beraiekin harremanetan jartzea eskatzen dute. Izena emateko, beraz, Totono (948 630129), Ttarratto (948 630223), Mikel Iturria (948 630741), Josu Goia (948 630083) edo Fran Agarari (948 630999) deitu beharko diete parte hartu nahi dutenek.

### Romero eta Gainzari omenaldia

Ehiza eta Arrantza Elkarteak bazkari-omenaldia eskainiko die uztailaren 15ean Manolo Romero eta Jose Mari Gainzari, elkartearen lehendakaritzan eta idazkaritzan urtetan egindako lana eskertu nahizik. Bazkaria Zalain jatetxean eginen da 14:00etan eta prezioa 30 eurokoa izanen da.

Txartelak uztailaren 7a baino lehen erosi beharko dira, Agara armadendan lan egunetan edo Ehiza eta Arrantza elkartean, ekainaren 30ean eta uztailaren 7an, 20:00etatik 21:00etara.



UTZITAKO ARGAZKIA

### *II. Kirolaren Eguna arrakastatsua*

**Ekainaren 10ean ospatu zen II. Kirolaren Eguna eta goiz goizetik jende aunitz ibili zen ekitaldi ezberdinetan. Goizeko 10etatik hasita eskubaloia, orienting proba, gimnasia erakustaldia, Tai-Chi, aerobic, ciclo indoor eta batuka egiten ibili ziren hurbildu zirenak. Zubiondon egindako bazkariarekin indarrak hartu ondoren, herri krossa, bizikleta itzulia eta gymkhana egin ziren. Egunari herri kirol erakustaldi batekin akabera eman zitzaion. Bertzalde, Gure Txokoaren 75. urteurrena aitzaki, Agerrako futbol zelaian Gure Txokoa eta Beti Gazteko jokalari ohien arteko partida jokatu zen, lesakarrek 1-2 emaitzarekin garaipena lortuz (argazkian). Esperientzia hain ona izan denez, partida gehiago egiteko asmoa agertu dute jokalariek.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Bera Mugarik Gabe*

**Hirugarren urtez elkartu ziren beratarrak eta inmigranteak Bera Mugarik Gabe ospatzeko. Herrian elkarbizitzen duten kultura ezberdinen topaketa da. Ekainaren 9an, filme baten proiekzioa eta nazioarteko areto futbol partidarekin hasi ziren ekitaldiak. Ekainaren 11n, eguerdian inmigranteek beraien herritako ohiko platerak eskaini zituzten. Arratsaldean, Berako abesbatza eta dantzariez gain, Contigo Peru izeneko musika eta dantza taldeak emanaldia eskaini zuen.**







LESAKA

# Musika eskolan izen emateko epea ireki da

012ra deitu behar da horretarako

Aitor AROTZENA

Udal Musika Eskolan izena emateko epea zabalik da ekainaren 26tik uztailaren 6ra. Irailaren 1etik 12ra ere izanen da horretarako aukera 012 telefonora deituz. Zalantzak izanez gero, telefono zenbaki berdinera, udaletxeko 948 637005 zenbakira edo 618 264659ra deitu behar da. Internet ere erabil daiteke, informazio gehiago aurkituko baituzue www.lesaka.net web-orrian.

Ikasle berriei dagokienez, 2000 edo 2001. urteetan jaiotako neska-mutikoek Musika eta Mugimenduan matrikulatuko dira eta 45 minutuko bi klase izanen dituzte astean. 7 eta 12 urte bitarteko ikasleek proba ttiki bat pasatuko dute irail hondarrean beraien musika ezagutza zehazteko eta hobekien egokitzen zaien ikastaroan sartzeko. Musika lenguaia, Instrumentoa (ikasleak aukeratzen duena) eta koral taldean matrikulatzen ahal dira. 13 urtetik goitikoek eta helduek aukeratzen duten instrumentoan matrikulatuko dira eta Helduen Tailerrean matrikulatzeko aukera ere ematen zaie, musika-tresnaren ikasketan abudoago joateko.

2005-2006 ikasturteko ikasleek ez dute 012ra deitu beharrik izanen, automatikoki matrikulatuko baitzaie, plan pedagogikoa eta ikasgai ezberdinetako kalifikazioaren arabera. Musika eta Mugimenduko bigarren kurtsoa egin behar dutenek bakarrik deitu beharko dute, instrumentoa aukeratu behar baitute. Baja eman edo matrikulazioan aldaketaren bat egin nahi dutenek ere 012ra deitu beharko dute.



Argazkia: Alicia del Castillo

***Giro ederrean joan zen Nafarroako Sagardoaren Eguna***

**Eguraldi beroari kontra egiteko sagardoa edatea bezalakorik ez bada, horretarako aukera ederra izan zen ekainaren 10ean. Nafarroako Sagardoaren Eguna ospatu zen, bero ikaragarriarekin. Goizean, Jo ala Jo taldeak kirikoketa erritmoan sagarra puskatu zuen eta dolarean lehen estutzea egin zuen. Haurrek gustora edan zuten sagararen lehen zuku horretatik. Sagardantza eta Zortzikoa ere dantzatu zuten Jo ala Jo taldekoek. Arratsaldean, 3 euroan edalontzia erosi eta hamabi sagardogileren eskaintza dastatzeko modua izan zen plazan. Tantirumairu dantza taldeak emanaldia eskaini zuen eta Tapia eta Leturiarekin dantzaldia izan zen eguna borobiltzeko.**

Bertzalde, musika eskolako saxofoi, klarinete, perkusio eta akordeoi ikasleek urte bukaerako kontzertua eskaini zuten ekainaren 21ean, Alondigako arkupetan.

### *Asteburu mugitua*

Heldu den ortzegunera arte txupinazorik botako ez bada ere, Sanferminak girotzen hasteko aski asteburu mugitua heldu zaigu. Larunbatean, uztailaren 1ean, Tantirumairu dantza taldearen 25. urteurrena ospatzeko bazkari herrikoia izanen da 14:00etan Koxkontan. Musika bandak kontzertua eskainiko du 20:00etan. Plater tiraketa Illasmendin eta pilota partidak frontoian ere izanen dira. Igandea ez da gibelera geldituko. 11:00etan Euskadiko sokatira txapelketako finala jokatuko da lur gainean 640 kilotan, Osasundegiko gibeleko aldeko zelaian, Beti Gaztek antolatuta. 15:00etan Agiñara autoigoera antolatu du laugarren urtez Eguzki Sport eskuderiak eta 19:30ean, Baztan-Malerreka-Bidasoako gazteen IX. trikitixa txapelketa eginen da plazan.



Udan ere bai euskarari

Udan ere Bai Euskarari! Sartu www.baieuskarari.org webgunean eta ikusi zeintzuk diren Bai Euskarari Ziurtagiria duten ostatu, hotel, jatetxe eta saltokiak, eta kontuan har itzazu!

Ez ahaztu, udan ere bai euskarari!

ETXALAR

# Giro ederrean joan zen aurtengo Haurren Eguna ekainaren 18an

## Ipuin Topaketa, eskulan erakusketa eta Txan magoa ikusi ahal izan ziren

**Joseba eta Nerea**

Haurrek idatzitako ipuinak paneletan, eskulanen erakusketa ondoan eta gisa guztietako marrazkiak paretetan. Erabat itxuraldatua ageri zen herriko frontoia joan den ekainaren 18an. Aurten 18. aldiz Haurren Eguna ospatu zuten Landagain eskolako ikasleek. Goizean goizetik hasita zer ikusi eta zertaz gozatu izan zen plaza bazterrean, eguraldi ederra lagun.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Landagain eskolako ikasle ttikienak, beraien egunean, Haurren Egunean, eman zizkieten liburuekin.**

Aspaldiko ohitura da Etxalarren Haurren Egunean eskulanen erakusketa paratzea eta aurten ere artelan franko eraman zituzten artista gazteek frontoira, herritar guztiek ikusi zitzaten. Jendea gustura ibili zen harat-honatean marrazkiak, eskulanak, ipuinak, edota argazkibildumak ikusi eta haurren ilusiozko azalpenak aditzen.

Eguerdiko 12:30ak aldean eman zioten hasiera XVIII. Ipuin topaketari. Trikitixarekin lagundutako bertsoak kantatu zituzten lehenbizi eta ipuinak idazten eta kontatzen duten abilezia erakutsi zuten gero, frontoira bildu zen herritar andanaren aitzinean. Pello Apezetxearen gidaritzapean, ziklo bakoitzetik ipuin bat irakurri zuten. Idazle onak direla eta istorio politak asmatzen badakitela argi erakutsi zuten. Herritarren txalo zaparrada ederraz gain, liburu bana jaso zuten guztiek egindako lanaren ordainetan.

Eguerdian bazkaltzera bildu ziren haur eta ez hain haurrak. Herriko Ostatutik ekarritako menua gustura eta giro onean dastatu zuten frontoian juntatutako 30 bat lagunek.

Arratsaldean ikuskizun ederraz gozatu zuten haurrek. Txan mago ezagunak saio ikusgarri eta koloretsua eskaini zuen. Bere magia trukuekin ikusle guztiak harrituta utzi zituen, objektuak desagertaraziz eta deus ez zegoen lekutik bertzeak ateriz. Musika eta argiarekin lagunduta, eguneko momenturik politena izan zen.

FLASH

### *Ikasturte akabaila Landagain eskolan*

Landagain eskolako haurrek oporrak hartu dituzte. Haurren Egunaren ondotik, ikasturtea ekainaren 21ean akabatu zuten. Urtero bezala, besta giroan ospatu zuten azken eguna. Bertiz Abentura Park-era egindako eskurtsio batekin erran zioten adio haur eta irakasle guztiek aurtengo kurtsoari. Goiza kirol abenturak egiten pasatu ondotik, arratsaldean Lekarozko igerilekuan izan ziren. Modu polita irakasle eta ikaskideak agurtu eta udako oporrak hasteko.

### *Kontzertua Herriko Ostatuan*

Giro ederra izan zen Herriko Ostatuan joan den ekainaren 16an. Berako Himen eta Sarako BKBO taldeek jende aunitz bildu zuten, bi ordu inguru iraun zuen kontzertuan. Ez da herrian kontzertu aunitzik izaten eta gazte jendeak ikaragarri estimatzen ditu horrelakoak. Giro onak ez zuen hutsik egin eta ordu ttikiak arte luzatu zen besta, kontzertua ikustera bildutako gehienentzat. Ea hurrengoa noiz antolatzen den.









IGANTZI

# Ziberespazioa egiteko lanak aintzinduak daude

Belatek antolatutako Herriarteko Txapelketa finalerdietan dago

Oskar TXOPERENA

Medikuaren kontsulta Barazarreara eraman zenean aprobetxatzeko moduko lekua gelditu zen lehenbiziko solairuan. Zenbait aukera eskuartean ibili ondotik, aspaldi samar erabakia zuen Udalak ziberespazioa edo ordenagailuak erabiltzeko lekua bertan egitea. Ezin izan zen Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik lortu baina azkenean Cedernak obraren bi herenak ordainduko zituela jakinarazi zien. Lanak aintzindu samarrak daude, eta, okerrik ez bada, abudo akautuko dira. Behin proiektua martxan paratzen denean, aprobetxatzeko moduko lekua izanen dugu denok.

### Bestak buruan

Bestak antolatzeko lehenbiziko bilera ekainaren 21ean egin zen. Pentsatzekoa denez, ez da oraindik gauza haundirik prestatu, baina besten nondik norako nagusiak lotzen hasiak dira. Errate baterako, besten datak erabaki zituzten, ez baitzegoen garbi igandearekin eta astelehenarekin akautu behar zuten. Azkenik, irailaren 28an hastea eta urriaren 2an akautzea erabaki zuten bertara joandakoek. Hurrengo bileraren hitzordua ere finkatu zuten. Uztailaren 12an egin da Biltoki Elkartean, arratsaldeko 20:30etan. Betiko moduan, bilera irekia izanen da joan nahi duten guzientzat.

### Herriarteko finalerdiak

Belatek antolatutako Herriarteko Txapelketan lehenbiziko postua lortu zuen Igantzik bere taldean, Ultzama eta Beraren aitzinetik. Ondorioz, finalerdietarako sailkapena lortu zuen eta joan den igandean ziren aritzekoak Aurizberrin Larraunen aurka. Pilotarentzat aunitz aldatu dira garaiak. Goratu bertzerik ez dago nola bizi izan zituen herriak Larraunen aurka jokatutako kanporaketak orain dela hogeita hamarren bat urte. A zer giroa ordukoa!



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### Zaborrontzi inguru txukunak

**Zaborrontzien eremuak txukuntzeko lanak aitzinera doazi. Bortzirietako Zabor Mankomunitatearen eskutik egiten ari dira lanak, eta, zabor-eremuak txukuntzeak gain, zenbait zaborrontziren kokapena aldatu edo kendu egin dira. Egurrez egindako hesiek aunitz murrizten dute zaborrontziek begibistarako duten inpaktoa.**



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

**Bertso saioa izan zuten eskolan ekainaren 9an. Hendaiako Bertso Eskolako bi ikasle izan ziren bertan, Maddalen Arzallus eta Kristine Txoperena, Amets Arzallus irakaslearekin, eta Bortzirietako Bertso Eskolako bertze bi, Ioar Tainta eta Josu Sanjurjo lesakarrak, hauek ere Estitxu Arozena irakaslearekin. Saio polita egin zuten herriko ikasleen aitzinean. Horietako hiru, bi lesakarrak eta Maddalen Arzallus, larunbatean ziren joatekoak Altsasura, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan parte hartzera, eta eurekin batera, lehenbiziko aldiz, igantziar bat: Adur Yanci.**






## ARANTZA

# Udaleku irekiak uztailaren 17tik abuztuaren 11ra izanen dira

### Astearte eta ortzegunero hiru orduko saioak izanen dira

**Nerea ALTZURI**

Berriz ere udan gaude. Eguraldi ederrak, oporrak, aisialdirako tartea... guziak urtaro horrekin lotzen ditugu, nahiz eta gutako aunitzek egunerokoarekin segitzen dugun. Hala ere, ezin da ukatu eskola umeak gustora hartzen dutela bi hilabete pasatxoko oporraldia. Ikasturtean eskolaz kanpoko ekitaldiak egiten badira ere, udaran bertze ekitaldi batzurekin topo egiten dute. Zenbaitetan ikasturtean lagunartean izaten dituzten hartuemanak urruntzen dira, oporretan bakoitzak bere plangintza egiten baitu. Halere, urteko lagun taldea berriz ere elkartzeko asmoz, badira aukera ezberdinak eta horietako bat udaleku irekiena da. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurten ere udaleku irekiak antolatu ditu. Euskaraz lagunartean elkarrekin ikasteko eta ongi pasatzeko helburua ardatz da oraingoan ere. Uztailaren 17tik abuztuaren 11ra eginen dira udalekuak. Astearte eta ortzegun arratsaldero, 17:00etatik 20:00etara izanen dira saioak, guzira zortzi. Kirola, eskulanak, ateraldiak... denetarik eginen dituzte aurten ere.

### Arantza Rock 2006

Ekainaren 16an Gazte Asanbladak bilera irekia egin zuen. Gai zerrendak, Arantza Rock jaialdiaz solastu zen batez ere. Badirudi aurten ere kontzertua eginen dela. Data eta taldeak zehaztuak dira, baina informazioa hurrengo aleetan jakinaraziko dizuegu.



UTZITAKO ARGAZKIA

***Lehenbiziko jaunartzea Besta Berri egunean***

**Ekainaren 18an lau neska-mutikok lehendbaiziko jaunartzea egin zuten. Aspaldiko urteetan bezala, Besta Berri ospakizunarekin egin da jaunartze eguna eta ohiko prozesioa ere egin zen.**



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

***Maiatz-belarra zabalean***

**Argazki honetan maiatz-belarra zabalean ikusten dugu. Ederki txigortua bai! Honezkero bildua da belagaia eta egin dituen bero patsak ez dira batere onak izan hurrengo «kortea» edo urri-belarraren hazkundea bermatzeko. Eskerrak euri zaparradaren bisita izan genuela! Bazen beharra eta!**









## ITUREN

# Aspaldiko Trinitate Egunik jendetsuena izan da aurtengoa

Iturengo Dantza Luzea berreskuratu zen Besta Berri egunean

Arkaitz MINDEGIA

Aurtengoan ere Trinitate Egun jendetsua izan zen. Goiz goizetik jende asko hurbiltzen joan zen Mendaurko kaxkora, eguraldi eguzkitsu eta beroaren laguntzaz. Urtegian ere giro ona zegoen, jendea bazkaltzen, dantzan... eguna herrian bukatu zen dantzaldiarekin. Aurtengo bitxikeri bat, urtegiko bidean uraren tuboa eramaten duen horretan zegoen: motoa zintzilik eta kartel batean hau jartzen zuen: «Txibatoak ez, motorzaleak bai». Joan den urtean herriko gazte batzuri isuna jarri zieten motorrarekin harrapatuta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iturengo Dantza Luzea berreskuratu eta dantzatu duen taldea.

### *Besta Berri*

Urtero bezala, Besta Berri egunean alkatea, zinegotziak eta aurten lehen jaunartzea egin dutenak elizara joan ziren. Aurtengoa berezia izan da, ordea, Iturengo Dantza Luzea berreskuratu baita. Besta Berri egunean Dantza Luzea dantzatzeko ohitura galdua zegoen, baina herriko dantzari eta xaharren laguntzarekin berreskuratu da. Iturengo dantzariek, gazte eta helduek dantzatu zuten.

### *Ander Erasun aizkolari txapelketan*

Ander Erasun aurtiztarra Euskal Herriko eta Nafarroako aizkolari gazteen txapelketetan arituko da. Euskal Herrikoa uztailaren 2an jokatuko da Arabako Ozateko kiroldegian, 12:00etan. Nafarroakoa, berriz, uztailaren 10ean eginen da Iruñeko Foruen Plazan, Sanferminetan Nafarroako Herri Kirol Federazioak osatzen duen egutegi zabalaren barrenean. Hemen ere eguerdiko 12:00etan izanen da hitzordua.

Ander Erasun orain arte herrian eta Beintza-Labaiengo bestetan aritu da aizkoran plazan, baina ikasten segitzeko gogotsu ikusten zaio eta gogor entrenatzen ari da. Aupa Ander eta segi horrela!

## KULTURA

# Bidasoako bertso-paper lehiaketako sariak banatu ziren

ttipi-ttapa

Bidasoako XIX. bertso-paper lehiaketaren sariak banatu ziren ekainaren 9an Berako Kultur Etxean.

• 12 urte arteko mailan, Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoienek irabazi zuen lehen saria, Lesakako Garazi Condek bigarrena eta Narbarteko Sukil Etxenikek hirugarrena.

• 12 eta 18 urte arteko mailan, lehen saria Iturengo Alazne Untxalok eskuratu zuen, bigarrena Doneztebeko Maialen Belarrak eta hirugarrena bi pertsonei eman zitzaien, Berako Saioa Baleztenari eta Sunbillako Itsaso Arrietari.

• 18 urtetik goitiko maila nagusian, 150 euroko lehen saria Berako Julen Zelaietarentzat izan zen; bigarrena Saldiasko Markel Lizasoainentzat eta hirugarrena Lesakako Erika Lagomarentzat.

NOVOPRINT
MATERIAL INFORMATIKO, TELEBISTA, AUDIO ETA BIDEO KONPONKETA
INFORMATIKA-SAREEN ISTALAZIOA
PARTIKULAR ETA ENPRESENDAKO ZERBITZUA
DOAN BILDU ETA ENTREGATZEN DA NAFARROA OSOAN
Lucas de Berroa, 18 behea (Anzaran) • IRUN • Tel.: 943 61 00 42 - 943 61 27 83

Baztango
promoción inmobiliaria
Inmobiliaria baterako komertziala behar da.
Bortziriak, Bertizarana eta Baztanen.
Baldintza ekonomiko onak.
Tel. 948 630 552 · info@baztango.com

Pitti
eskabazioak
Tel: 6 6 513 491

Mendaldea etxea, 34 · ZUBIETA

SUNBILLA

# Ikasturte bukaera ospatzeko hainbat ekitadi egin zituzten herriko haurrek

## Besta Berri eguneko prozesioa ikusgarria izan zen

**Jaione OTXANDORENA**

Ekainaren 21ean herriko haurrek aurtengo ikasturteari akabaila emateko besta egin zuten. Eskolako azken egunerako ekitaldi ugariak prestatuak zituzten ikasle eta irakasleek. Lehendabizi proba bixiz beteriko ginkana egin zuten, adin desberdinetako taldeetan banatuta, eta ondoren, bertara hurbildu ziren guraso eta beste zenbait herritarrentzat kantuak eta dantzak eskeini zituzten. Orain uda guztia aintzinetik dute eguraldi onaz eta denbora libreaz gozatzeko.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

**Kale nagusia dotore jarria zegoen Besta Berriko prozesioa pasatzeko.**

### *Besta Berri prozesioa*

Bertze urte batez, joan den ekainaren 18an, Besta Berri eguna ospatu zen. Meza Nagusiaren ondotik, elizatik prozesioa atera zen, eta zubi berri eta zaharretik pasatu ondoren, berriro ere eliz atarira itzuli ziren. Kale nagusia dotore-dotore jarrita zegoen prozesioa pasatu orduko. Etxe batzuetako leihoetatik estandarteak zintzilik zeuden eta etxeetako atariak lorez beteta. Ibarra etxeko atarian aldare ikusgarria irudikatuta zegoen. Prozesioan, aurten lehenengo jaunartzea egin duten gaztetxoak atera ziren, udaletxeko zinegotziak eta herriko txistulariak, bertzeak bertze. Prozesioaren bukaeran, Martin Iratzoki zinegotziak bandera dantzatu zuen.

### *Herri kirol desafioak izanen dira besta bezperan*

Orain dela bi urte, herriko bi mutil kuadrilek besta bezperan herri kirol desafioa egiten hasi ziren. Joan den urtean lau neska kuadrila ere elkartu ziren herri kirol desafioa egiteko, eta ekitaldiak izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere antzeko zerbait prestatzeko bilerak hasiak dira. Ea joan den urtean bezain polita ateratzen den!!



1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak • mantelak • edredoi nordikoak
edredoi-azal nordikoak • ohe estalkiak
maindireak • kuxinak • toailak

ERREKA, IGERILEKU ETA HONDARTZARAKO TOALLAK

GOIZUETA

# Korua sortu nahi dute herrian

Kantatzea gustatzen zaienei luzatu die deialdia Kultur Taldeak hurrengo larunbaterako



ARGAZKIA: MARIA APEZETXEA

**Garai bateko dizdirarik ez du, egia esateko, baina oraindik ere solemnidade haundiz egiten da Korpus eguneko prozesioa.**

Esteban AROTZENA

Kantatzea gustoko duten herritarrek nahitanahiezko hitzordua dute larunbat honetan, uztailak 1, 13:00etan Ganbaran. Herritarrez osatutako abesbatza egiteko asmoa du Kultur Taldeak, baina beste pausorik eman aurretik, balizko koru horrek beharko lukeen haina abeslari elkartzen ote dituen jakin nahi dute. Egun horretan agertu ezin den herritarrak bere interesaren berri eman omen diezaioke Kultur Taldeko edozein kideri.

### *Gazte Asanblada*

Gazte Asanbladakoak ere ez dira uda besoak gurutzatuta igarotzeko asmotan, uztaila ez behintzat, hilabete osorako ekitaldiak prestatu baitituzte hilaren 1etik hasita. Egun horretan Arantzara eginen duten mendi irteerak emanen dio hasiera klase guztietako emanaldiz betetako egitarauari. Hilaren 10ean eta 13an, arratsaldeko 6etatik aurrera Gaztetxean eginen den sexualitate ikastaroa aipatuz bukatuko dugu gaurkoan, baina hurrengo alean emanen dugu gainerako ekitaldiei buruzko berri luze eta zabala.

### *Asteburua Baztanen Umore Onarekin*

Ondoren ikusiko dugun bezala, uztaileko lehen asteburua ekitaldiz gainezka heldu da. Hasieran aipatutakoaz gain, Baztango hainbat lekutara larunbat eta igandeko irteera antolatu du Umore Ona elkarteak 35 euroren truke. Larunbata Bidarrai ibaian eta Bertiz Abentura Parkean igaroko dute, eta igande goizean Saioa mendira igoko dira txangozaleak.

### *Musika Eskola*

Ostiral honetan, ekainak 30, bukatzen da udal musika eskolan matrikulatzeko epea. Jakina den bezala, edozein musika tresna jotzen edota kantatzen ikasi nahi duten herritar guzientzat zabalik dauzka ateak musika eskolak.

ARESO

# Irakasle kopurua murriztearen kontra sinadurak biltzen

Eskolako gurasoak ari dira



ARGAZKIA: JUANA MARI

**Dantza taldeak emanaldi polita eskaini zuen Olinpiada egunean.**

Juana Mari SAIZAR

Herriko eskolak aurten bi irakasle ditu egun osoz eta bat egun erdiz. Heldu den ikasturteari begira Hezkuntza Departamentutik jakinarazi dute bakarrik bi irakasle aurreikusten dituztela Aresoko eskolarako. Hori horrela izanda, gurasoak mobilizatzen ari dira, eta Udalaren atxikimenduarekin, herrian firmak ari dira biltzen, mobilizatzeko indarra azaldu nahian.

### *Xabier aldera bidaia*

Aresoko Udalak, parrokiarekin batera, Xabier aldera egun osoko irteera antolatu zuen ekainaren 23an. Autobus zerbitzua doan izan zen nahi zuten herritarrentzat eta jubilatuek bazkaria ere ordaindu ta zuten. Irunberriko Arroila, hain ezaguna dena, bisitatu eta bazkaria bodega batean izan zuten.

Udari haria emanez, San Joan sua eta afaria ospatu ziren. San Pedro Jaiak prestatuta daude dagoeneko eta gozatzea bakarra falta da.





# 2006

# Sanferminak

uztailaren 6tik 10era

# LESAKA





Herriz herri,
bestaz besta





Estetika Zentrua · Ileapaindegia
Azal eta gorputz tratamenduak
Depilazioa
Solariuma · Makilajea
Pedikura · Manikura...
Albistur 39
31770 Lesaka

MERTZERIA
- Deñe -
LENTZERIA
BESTAK ONGI PASA !!
Beheko Plaza, 10
Tel. 948 627 514
31770 Lesaka - Nafarroa

Dia %
LESAKA
Sanferminetan
otordu goxoak
prestatzeko
LESAKAKO DIA
Dia % Plaza Berria, 10 · 948 637 335

Etxarte
bitxidenda · erlojudenda · kirol trofeoak
ONGI PASA HERRIKO BESTAK !
Albistur karrika, 1 · 948 637 205 · LESAKA

ETXEBERRIA
OSTATUA
Plaza Zaharra, 21
Tfnoa: 948 637 700 · LESAKA

FAGOAGA HARATEGIA
Aupa San Fermin !!
Albistur, 17 · 948 63 78 69 · LESAKA

TALLERES FRAIN
LESAKA · Tel.: 948 637 525
Ongi pasa bestak!

BAR FRONTÓN

GARBILEKU
Garbitegia Lesaka
Plaza Berria, 10 · Tfnoa: 948 637 438

# Sanferminak

## uztailaren 6tik 13ra

# LESAKA

### Uztailak 1 Larunbata

**Arratsaldeko 14:00etan:** Koxkontan, Tantirumairu Dantza Taldeak antolatuta Bazkari Herrikoia. Taldearen 25.urteurrena ospatzeko.

**15:00etan:** Illasmendiko tiro-eremuan Plater Tiro lehiaketa, Pagolleta Ehizi Elkarteak antolatuta.

**17:00etan:** Frontoian, haurren pilota erakustaldia. Arkupe elkarteak antolatua.

**20:00etan:** Plaza Zaharrean, Lesakako Musika Bandaren emanaldia.

### Uztailak 2 Igandea

**11:00etan:** Euskadiko Sokatira Txapelketaren finala lur gainean. 640 kilotan. Osasundegiko gibeleko aldeko zelaian. Beti-Gazte Elkarteak antolatua.

**15:00etan:** IV. Automobil-igoera Agiñara, Escudería Eguzki Sport-ek antolatua.

**19:30ean:** Plaza Zaharrean, Baztan-Malerreka-Bidasoako gazteen IX. Trikitixa Txapelketaren finala.

Urtero bezala, besta giroan murgiltzen joateko, hainbat ekitaldi izanen dira San Fermin aitzineko asteburuan. Larunbatean, Tantirumairu dantza taldearen 25. urteurreneko bazkaria, Plater-tiro lehiaketa, Pilota eta musika bandaren erakustaldia. Iganderako berriz, Euskadiko Sokatira txapelketa, Auto igoera, eta Baztan-Malerreka-Bidasoako gazteen IX. trikitixa txapelketa antolatu dute.








Goiz-Alde
Bittiria, 41
31770 LESAKA
948 637 518

ibai-ondo
janaridenda
Antolu karrika
Tel: 948 637 949
LESAKA

PASTELERIA HAIZEA BOLLERIA
CAFETERIA
Tel: 948 638 036
Plaza Zaharra, 7
31170 LESAKA

IGOMAR S.L.
igeltseritza orokorrean
Gora San Fermin !!!
948 637 873
948 637 320
LESAKA

INDARRI
Hotz komertziala
eta industriala
Tel: 948 630 898
Mug: 639 103 305 BERA
Aupa Sanfermin !!

IÑAKI janaridenda
Besta ederrak pasa itzazue !!
Arretxe, 12 · 948 638 287 · LESAKA

IRU BIDE
Burrona, 3
LESAKA
Tel:
948 637 127

ERRO zurgindegia
Zurgin lanak
orokorrean
Alan-zahar
948 637 862 · LESAKA

Pinpirin
ILEAPAINDEGIA
Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnoa: 948 63 80 37

Matias MITXELENA
eraikuntzak
· Etxeak
· Zaharberritzeak
· Teilatuak
LESAKA

ZAPATADENDA

• Txus Ubiria Andueza
margoketa lanak · pintor
Ongi pasa Sanferminak

Tel:
948 627 660
689 481 980

J.RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA

APITTU ALUMINIOAK
Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak, Ateak, Garajeko Ateak eta Barandilak
ONGI PASA SAN FERMINAK!
Otsango Auzoa, 7 - Pab. - LESAKA • Tel/Faxa: 948 638 297
apittu@hotmail.com

›urtean zehar
BOKATAK PINTXOAK RAZIOAK
KAXULAK PLATER KONBINATUAK
›besta egunetan eta enkarguz
MENU BEREZIAK
Albistur 11 · Lesaka

ONGI PASA BESTAK!
D
HIRUKIDE
Eguzki panelak ◄► Iturgintza 630 441 315
Industria mantenimendua ◄ 628 015 933
Aire egokitua ◄
Elektrizitatea ◄ 606 980 440
Zalain Industrialdea 42 B - 15 • 31780 BERA (Nafarroa)
Fax: 948 625 392 • email: zerbitzua@terra.es




Altxaferoa bota ondotik, haur danborrada desfileak, herriko karrikak besta giroan murgilduko ditu trikitilari eta txarangarekin batera.



**Uztailak 6 Ortzeguna**

## BEZPERA EGUNA

**12:00etan:** Herriko-Etxetik igoko den altxaferoaren eztandak emanen die hasiera aurtengo bestei. Ordu berean txistulariek, soinulariek, INCANSABLES txarangak, trikitilariek eta haur ttikien danborradak girotuko dizkigute herriko kaleak euren soinu alaiekin.

**17:30ean:** Frontoian, "Tantirumairu Euskal Folklore Taldea"ren erakustaldia.

**20:00etan:** Peña guzien ordezkariak altxaferoa bota ondoren danborrada nagusia abiatuko da, Erraldoi eta Buruhandi, danbor-jole eta soinulari, Lesakako Banda eta guztiz, herri osoari itzulia emanez kalez kale.

**00:00etan:** Musika Plaza Zaharrean, **"TRIKITA KE"** taldearekin. **"INCANSABLES"** txaranga kalez kale.

















izarra
okindegia
Tel: 948 637 855
Plaza Zaharra, 13 - LESAKA

Haur jaio berrientzako
osteopatia tratamenduak
Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA
Itzea 20 - Bera - T: 948 630 187 M: 607 853 208

LEGARRA
EGUNKARIAK
ALDIZKARIAK
LIBURUAK
OPARIAK
TABAKOA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAX PUBLIKOA
Egunero irekia
Tlfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA

IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Telf.: 948 63 74 60
31770 Lesaka (Navarra)
Kalefakziorako Gasoila
etxez etxe banatzen da
Besta ederrak pasa !

Ekitaldi ugari izanen dira San Fermin egunean Lesakan. Ikusgarri
Dantza guzti hauetaz gainera, bertso jaialdiak, karrika animazioak

## Uztailak 7 Ortzirala
## SAN FERMIN EGUNA

**08:30ean:** Ezpatadantzarien meza ixila. Joan-etorria Txistulari bandaren laguntzaz eginen da.

**10:30ean:** Udalbatza bertze agintariekin, Ezpatadantzari eta Musika Bandarekin batera, abiatuko dira Herriko Etxetik Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du.

**Ondotik:** Fermin Zaindariaren irudiarekin herri guzitik prozesioa. Udalbatza, Eskolttikira jaitsiko dira, Onin errekaren egiten den "**ZUBIGAINEKOA**" ikustera, XV. mendean lesakarren artean lortu zen bakea oroitarazten diguna. Berehala, "Bandera-arbola" doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko Etxera igan aitzinean.

**18:00etan:** Bezperak: Elizarako eta Elizatiko joan-etorria Meza Nagusira bezala eginen da. Bezperetan, Lesakako Abesbatzak kantatuko du. Bezperak akitu ondoren, eta ohiturari jarraituz, Ezpatadantzari taldeak MUTIL-DANTZA, NESKA-DANTZA, AURRESKU eta JOTAK dantzatuko ditu Plaza Zaharrean.

**19:30ean:** Plaza Zaharrean, bertso jaialdia, Arrano Elkarteak antolatua: Xabier Silveira, Andoni Egaña, Julen Zelaieta, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Estitxu Arozena. Gai jartzailea: Alaitz Rekondo

**19:30etan:** karrika animazioa haurrentzat, Goloka taldearen eskutik "**SORGINAK**", Bittirian barna.

**Gauez:** Musika Plaza Zaharrean, **TXIMELETA** taldearekin. Egun guzian, "**INCANSABLES**" txaranga kalez kale.

ak diren, mutil-dantzak, aurreskuak, jotak, Zubigainekoa…
dantzaldiak… ere izanen dira.




LESAKA AUTOESKOLA
25 urte
Gora San Fermin!!!!
Albistur 39 - H
LESAKA
Tfnoa: 948 637 870

MADERAS
ERKIZIA, S.L
EXPLOTACIONES FORESTALES
BASO USTIAPENAK
Ongi pasa HERRIKO BESTAK!
Plaza berria, 7
31770 - LESAKA
e-posta m.erkizia@teleline.es
Sakelakoak: 616 45 72 74
616 45 72 75
Tel: 948 63 71 58
Faxa: 948 63 80 31

Maite & Gemma
ileapaindegia estetika solarium
T. 948 637 280
Albistur Kalea 15
31770 Lesaka
San Fermin onak pasa !

KONGELATUAK:
Albondigak
Urdaiazpiko,
oilasko, piper
eta arraultze kroketak
Esarte
AINTZINETIK PRESTATUTAKO
JANARIAK
Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko
janaridendetan
Jaime Urrutia 35 · ☎ 948 58 01 28
ELIZONDO

JOISA
AROZTEGIA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK
MAKINA ERREMINTA
Barandak, balkoiak, hesiak, forja artistikoa...
Otsango industrialdea - LESAKA
Tfnoa/Faxa: 948 638 150
Mug: 646 774 117

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE

jai alai eta
pozgarriak
izan itzazuen
Plaza Zaharra - 948 63 72 87
LESAKA



ETXE TRESNAK
Ongi pasa Sanferminak!!
Zarandia, 3
LESAKA
948 637 070
607 946 191






Goiz goizetik ongi pasatzeko aukera Peñen egunean, gosariarekin hasiz eta Diskofestarekin amaituz.








## Uztailak 8 Larunbata

## PEÑEN EGUNA

**09:00etan:** Peñen gosaria.

**10:00etan:** Peñen danborrada, "INCANSABLES"txarangarekin.

**12:00etan:** Betizuak, Plaza Zaharrean, "INCANSABLES" txarangarekin.

**17:00etan:** Plaza zaharrean "Betizuak izar artean" haurrendako ikuskizuna.

**18:00etan:** Peñen kontzentrazioa Txarangarekin, Peñen jeitsierarako.

**20:30ean:** Plaza Zaharrean, betizuak.

**20:30ean:** Mariatxik kalejiran, **"ANGELES DE MEXICO"** taldearekin.

**22:00etan:** Batukada, **"ZO-ZONGO"** taldearen eskutik.

**00:00etan:** Plaza Zaharrean, Diskofesta, **"IMANOL"**









AROZTEGI METALIKOA

S. Odriozola - B. Huici

☎ 948 631 244 - Fax.: 948 625 564

Alkaiaga Industrialdea
Elutxa karrika - Pab. 3/18
31789 LESAKA

Ongi pasa San ferminak !!!










## Uztailak 9 Igandea

## HAURREN EGUNA

**10:30ean:** Haur koskorren danborrada, buruhaundiak, erraldoiak eta INCANSABLES txarangarekin, Antoiu eta Albistur karriketan barna.

**11:00etan:** Haur animazioa, "GORRITI", Eltzeta plazan.

**12:00etan:** Betizuak, Plaza Zaharrean.

**Arratsaldez:** Irain Eskolako patioan "Navar Producciones" haurren ikuskizunak: Karts, Puzgarriak ...

**18:00etan:** Frontoian, eskuzko pilota partidak, Arkupe Elkarteak antolatuak.

**19:30ean:** Plaza Zaharrean, herriko gazteen **DANTZA-JAZZ** erakustaldia, Beti-Gazte Elkartearen eskutik.

**Arratsaldez eta gauez:** Musika, Plaza Zaharrean, **"EGAN"** taldearekin. **"INCANSABLES"** txaranga herri guzitik.

** Oharra: Udalak ez ditu bere gain hartuko 16 urtetik beheitikoek zezen ikuskizunetan (betizuak) izan ditzaketen istripuak. Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 10.5.d. artikuluan xedatutakoaren arabera.*





Haur danborrada, betizuak, esku-pilota, Puzgarriak, Dantza-Jazz... egun aproposa antolatu dute haurrendako.



Etxepare eraikuntzak anaiak
Bittiria, 22 · LESAKA · 948 637 431

Imaginazioa mugarik gabe
Ongi pasa San Ferminak!!!
ORONOZ ARGAZKIGINTZA
oronoz@telefonica.net
Plz. Zaharra, 11 · LESAKA · 948 637 593 · 620 056 739

MARMOLES ALKAIAGA, S.L.
marmolesalkaiaga@tiscali.es
Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan
ONGI PASA BESTAK!
Alkaiaga ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) · LESAKA
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
Mug: 609 207 731

KRISTALDEGIA
- CLIMALIT kristal bikoitza
- ISPILUAK edozein lodiera eta kolorekoak, alakadunak, kanteatuak...
- BEIRA-PLAKA LANDUAK
- BEIRA BLINDATUAK
Antoiu, 34 C · LESAKA · 667 424649

TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN S.L.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY
Gora San Fermin !
Otsango industrialdea 14 nabea · LESAKA
☎ 948 638 052 · 669 840 198
Fax.: 948 627 578 · transtxakain@yahoo.es

Jardineria-Lorazaintza

JOHN TELLETXEA MAYO
INGENIERO TECNICO AGRICOLA

Gora San Fermin!

PARKE PUBLIKOAK ETA LORATEGI
PRIBATUA SORTZEA ETA ZAINTZEA

Bittiria, 4 · 2º Esk. · Lesaka
Tel.: 948 627 561

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

**LESAKA**: Bittiria, 71-behea
Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404
**BURLATA**: La Viña, 4
Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713
artekari@artekari.com




ERAIKUNTZA
TRADIZIONALA
Lurra
Harria
...
Ongi pasa bestak!
✆ 652 764613








## Uztailak 10 Astelehena

### EZKONDUEN EGUNA

**10:30ean:** Haur eta gurasoen danborrada buruhaundi eta erraldoiekin, INCANSABLES txarangak lagundurik.

**11:00etan:** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Nafarroako Jotak, **"PAMPLONICAS"** taldearekin. San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak antolatua.

**12:00etan:** Betizuak, Plaza Zaharrean, INCANSABLES txarangarekin.

**16:30ean:** Eltzetako Plazan, DETRAKA taldearen eskutik haurren tailerrak eta ondoren txotxongiloak Kixka Taldearekin.

**18:00etan:** Plaza Zaharrean, Nafarroako Jotak, **"PAMPLONICAS"** taldearekin.
San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten elkarteak antolatua.

**18:00etan:** Garai batean egiten zena gogoratuz, Eskolttikitik Txakainera kalejira, Musika Bandarekin.

**20:00etan:** Txakaindik jeitsiera, ZORTZIKO doinuarekin.

**Arratsaldez eta gauez:** Musika Plaza Zaharrean, **GAUBELA** taldearekin. Ondoren INCANSABLES txaranga.

**03:30ean:** JAI-HILAK. **"INCANSABLES"** txarangarekin.

** Oharra: Udalak ez ditu bere gain hartuko 16 urtetik beheitikoek zezen ikuskizunetan (betizuak) izan ditzazketen istripuak. Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 10.5.d. artikuluan xedatutakoaren arabera.*



























# Gora SAN FERMIN!!







eraikuntza enpresa

Biurrana auzoa, Etxartenea · Tfnoa-Faxa: **948 637 709** · Mug: **608 770 850** · **LESAKA**

t

BESTETAKO
DVD ETA BIDEOAK
SALGAI

BESTAZ BESTA 06

eskatu zurea

ttipi-ttapa TB
948 63 54 58

LESAKAKO UDALAK

San Fermin zoriontsuak opa dizkie
herritar eta kanpotik etorrikotako guztiei



Lesakako
Udala

BAZTAN

# Lekarozko ikastetxe zaharra Nafarroako Gobernuak erosi du 3,23 milioi eurotan

Balleko Udalak begi onez ikusi du, nahiz eta erosketa ixilpean egin izana ez gustatu




UTZITAKO ARGAZKIA

**Ilegalizazio politikaren kontrako ekintza**

**2003ko hauteskunde munizipaletan Guazin herri plataformari zegokion zinegotzia ez zen onartua izan. Plataforma honen kideek protesta ekitaldi bat burutu zuten Baztango udaleko ekainaren 16ko batzarrean. Plataformak aurkeztutako mozioak ilegalizazio politika bertan behera uzteko eta Balleko Udalak ilegalizazio politikaren ondorioz udal hauteskundeetan herritarren babesa jaso zuten hautatuek beren eskubideak gauzatuak izan ditzaten urratsak emateko konpromisoa hartzea eskatzen zuen. Batzarrean landu ez zenez, protesta ekintza egin zuen Guazin Plataformak.**

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Lekarozko kaputxinoen ikastetxe zaharra erosi du 3,23 milioi euroren truke (537,5 milioi pezeta). Francisco Iribarren, Nafarroako Gobernuko presidenteordea eta Ekonomia kontseilariak (baita Lekarozko ikasle ohia ere) aipatu duenez, oraindik ez dakite xuxen zertarako erabiliko den, baina etxebizitzarik ez dela eginen aipatu dute: *«azpiegiturak egin nahi genituzke, izan kirolekoak, kulturakoak, komertziokoak, aisialdikoak edo turismokoak... Irurita-Elizondo saihesbidea ere ondotik pasatuko da eta kokapen arras ona du»*.

Aitzineko alean aipatu genuenez, Iniciativas Innovadoras enpresak egindako ikerketa batek ikastetxea Balleko Udalak erostea aholkatu zuen. Baina, udal abokatuak ekainaren 20an horretaz solastera gan zirenean, dagoeneko saldua zegoela erran zieten. Balleko Udalari, bi urte terdiz lanean aritu ondotik, erosketa ixilpean egin izana ez zaio gustatu, baina begi onez ikusi du Nafarroako Gobernuak erostea. Virginia Alemanek erabakia txalotu du ofizialki, Udalaren ustez *«hobea baita erakunde publiko batek erostea pribatu batek baino»*. Gainera, etorkizunean ikastetxeari ematen ahal zaizkion erabilerei buruz udalak egindako ikerketak Nafarroako Gobernuaren esku uzteko prest agertu da. Begoña Sanzberro, UPNko zinegotzi eta parlamentariak jakinarazi digunez, negozioak urte hasieran hasi ziren. *«Nafarroako Gobernuak Baztanen inbertitu nahi duela erakutsi du eta honela, ezin izanen da Lekaroz zatika saldu»*.

Lekarozko ikastetxearen eta inguruan dituen 14 Hektarearen truke 4,2 milioi euroko eskaintzak ere hartu omen dituzte fraideek. Nafarroako Gobernuak hasierako prezioa baino gutiago ordaindu du, nonbait zuretan pipia harpatu delako.


MENDI ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
T. 948 453 050
N-121-B, 66. km
AMAIUR

SOULE
Hileta artea
948 453444-629 659583
ARIZKUN

OÑASKA
ERRETEGIA
Bagordiko bidea • ELBETEA • 948 452 088
BEREZITASUNAK:
Betiko euskal sukaldaritza / Haragiak eta arraiak brasan
ASTEBURU - JAI EGUNETAN: Pittika errea
ETXEKO POSTREAK

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

abartan
CERRAMIENTOS • ITXITURAK
PVC eta ALUMINIOA
• ateak • leihoak
• kontraleihoak
• manparak
• zeramikak (fabrikako prezioetan)
• kontsumo gutxiko kalefakzio elektrikoak
Uda honetan eulisk ez daitezela zure etxean sartu!!
EULI-SAREAK
Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO
Tel. 948 581 152 • 667 264 025 • 686 970 725
maxene@terra.es

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
948 581 465
948 580 433
Frantziako etorb. 12
Arreztiaipe 3B
ELBETE

BAZTAN

# Azpilkuetako Sanferminak uztailaren 5etik 8ra ospatuko dira

Egun handian zikiro jatea eginen da



ARGAZKIA: JOSEBA MARIEZKURRENAK UTZIA

**Hondar egunean bazkaria eginen dute Azpilkuetako gazteek.**

### Asteazkena 5

**21:30ean:** Baztanzopak.

**0:00etatik 4:30era:** JOXE ANGELekin dantzaldia plazan.

### Ortzeguna 6

**HAURREN EGUNE**

**12:00etan:** Txupinazoa, kalejira.

**16:30ean:** «Rosa, ipuin bat kontaidazu» txotxongilo antzerkia.

**17:00etan:** Mus txapelketa.

**17:30ean:** Txokolatada eta zozketa berexi bat.

**20:30etan:** FRANZISKOrekin dantzaldia plazan.

### Ortzileria 7

**SAN FERMIN EGUNE**

**8:00etan:** su piztea.

**9:00etan:** gosarie.

**10:00etan:** dianak.

**11:30ean:** Meza Nagusia (herriko koroak abesturik).

**13:00etan:** Herrikoentzako luntxa.

**14:00etan:** Zikiro jatea, FRANZISKOk alaiturik.

**16:00etan:** Kantaldia JAIONE OLAZABALen eskutik.

**22:00etan:** Herriko afaria.

**0:00etatik 4:30era:** FRANZISKOrekin dantzaldia plazan.

### Larunbata 8

**9:00etan:** dianak.

**11:30ean:** plater tiro txapelketa.

**13:30ean:** gazteen bazkaria.

**15:30ean:** Partxis txapelketa.

**18:00etan:** Azpilkuetako pilota txapelketa haundia.

**20:30etik 22:00etara:** ALAI taldearekin dantzaldia plazan.

**1:00etatik 5:00etara:** ALAI taldearekin dantzaldia plazan eta

## Arraiozko hilerria handitzeko lanak eman dira

**ttipi-ttapa**

Aspaldian leku eskasia zela eta Arraiozko hilerria handitzea eskatua zuten herritarrek. Dagoeneko, hilerria handitzeko lana adjudikatu zaio Manuel Mitxelena Maritorenari, 39.000 euroan. Florentino Goñi zinegotziak aipatu digunez, *«anpliazioa lehenbailehen eginen da eta ondoan aparkalekua egiteko ere dirulaguntza emanen du Balleko Udalak».*



ZUGARRAMURDI

# Ur arazoak moldatzeko tuboa sartu dute kanpamentuko presatik depositora

## Ureztatzeekin eta ixurketekin kasu emateko eskatu du Udalak


ARGAZKIA: KORO
**Tinta bentan pinturak eta horren inguruko tresneria saltzen dute.**

Margari eta Koro

Euskal Herriko toki gehienetan bezala, gure hauetan ere ur falta sumatzen ari gara, belategietan, mendian, erreketan... eta baita urdepositoetan ere. Zugarramurdiko Udalak bando bat atera du, ureztatzeekin kasu emanez ibiltzeko eskatuz, eta gauza bera gertatzen diren ixurketak ahal bezain laister konpontzeko. Aldi berean ur gehiago hartzeko lanetan hasi dira. Gan den urteko lehortean probisionalki kanpamentuko presatik depositoraino ura ponpatu zen eta orain gauza bera egiten ari dira, bainan behin betikotz, tuboak lur azpian sartuz.

### *Tinta Benta ireki dute*

Denda berri bat ireki dakute herrian, "Tinta Benta" izena duena, eta izen horrek dioen bezala pinturak eta horren inguruko tresneriak salduko dira. Harrapatzeko ere ez du galtzerik: Dantxarinetik heldu den bidetik herrira sartzerakoan lehenbiziko etxea da, eskuineko aldean.

### *Besta Berri prozesioa*

Aurten ere Besta Berriko prozesionea herriko karriketan egiten ahal izan da. Urte batzuk egon ziren usaia hau galdurik, bainan gan den urtean berreskuratzea lortu zen; hori bai, aldaketa batzuekin: igande eguerdian egin beharrean larunbata ilunarrean egiten da, eta prozesione berak ere aldaketa batzuk izan ditu (plazan ez dela aldarerik jartzen adibidez).

### *Bestetarako bilera*

Gutti falta da ia herriko bestetarako, eta nahiz eta ekitaldi eta musika guztiak lotuak izan, oraindik antolakuntza aunitz falta da.

Horretarako Akelarre elkarteak bilkura batera deitzen du, heldu den 30ean (ortziralea) arratseko 8etan Akelarrenean. Bilkura huntan bestetako lanak nola banatu ikusiko dira eta ahal bezain jende gehien etortzea eskatzen da.


ARGAZKIA: KORO
**Ur tuboa lur azpian sartu dute kanpamentuko presatik depositoraino.**






SARA

# GR8 mendi ibilaldia antolatu da hirugarren aldikotz uztailaren 16an

## Ikasturtea ongi bukatzeko ateraldiak antolatu dituzte herriko eskolek

Laetitia eta Sandrine

Hirugarren aldikotz, Uztailaren 16an igandearekin, GR8 mendi ibilaldia antolatua da. Lau tokitik abiatzen ahal da, Sararat heltzeko. Lehen abiatzea 8etan eginen da Kanbotik, 25 kilometrorentzat, bigarrena 9etan Ezpeletatik 16 kilometrorentzat eta azkenak 11tan Senpere edo Azkainetik, 8 kilometrorentzat.

Ibiltari guziak Zuhalmendin elgarretaratuko dira, Sarako plazarat ailegatzeko eguerdi aldean. Izen emaiteak 2euro, autobusak antolatuak izanen dira, ibiltariak beritzultzeko.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Gaztetxean uda modu berezian hasi zuten. Ekainaren 21ean, janaria eta musika lotzen zituen gaualdia antolatu zuten. Guillaumek eta Martxelok, euskaldunak eta uruguaiarrak, 9 pintxo prestatu zituzten. Karles trikitilari katalanak, 9 musika zati jo zituen. Pintxo bakoitzak bere doinua bazuen.**

### *Udako animazioak*

- Uztailaren 4ean asteartearekin arratseko 21:30ean, Sarako Turismo bulegoak antolaturik, kantaldia Tximi Txama taldearekin, sartzea urririk Sarako elizan.
- Uztailaren 5ean asteazkenarekin, Sarako Zazpiak Bat dantza taldeak ikusgarria eginen du, plazan 21:30ean.
- Uztailaren 10ean, astelehenarekin pilota partida,Sarako errebotean, 21:15ean.
- Uztailaren 11n, asteartarekin, kantaldia elizan Larrun Kanta taldearekin, 21:30ean.

## Eskolak

Ikasturtea ongi bukatzeko, ateraldiak antolatuak izan dira:

### *Eskola Publikoa*

- Ama eskolako haurrak joan dira Miarritzeko Itsas museorat maiatzaren 15ean.
- CM1 eta CM2 mailak, Sokorat joan dira haize oihal ikastaldi baten egiterat, maiatzaren 15etik 19rat.
- CP, CE1 eta CE2, Peyranèrerat joan dira ekainaren 15-16an. Ekainaren 24an urte bukaerako besta egin zen polikiroldegian.

### *San josepe eskola*

- Maiatzaren 22tik 24ra, 40 bat haur Royan hirian ibili dira, Palmir zoo-a bisitatu dute, baita baratze bat landare aromatikoekin ere.

Uztailaren 1ean, urte bukaerako besta berezia antolatu du, Bernadette Darrieumerlou irakasleak erretreta hartzen duelakotz. 34 urte egiten du Saran irakasle dela. Horren karietara ikasle eta irakasle gonbidatuak dira. Arratsaldean, haurrek ikusgarria eginen dute: Donapauleko Pil Pil Pil kantari taldea entzun eta afaria Ttotte Michelenak ailaturik.

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3. km
URDAZUBI

MENDI LANAK
Zerrakurak • Pikete salmenta
Landaketa eta garbiketa
ETXARTE IGANTZI
630 943 589 - 948 637 567 (21:00etatik aintzn)

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maiean eta Véronique
SARA

arkilanak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
SANTIAGO 55 2°B ELIZONDO TLF 948 581 931





SEAT
HYUNDAI
Audi
ZOANSA
MARKA GUZIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SENPERE

# Erearoaren 30ean hasiko dira herriko bestak

Koloka, Urgabe, Patxa Mama, Bidekoa eta Entzun taldeek alaituko dituzte karrikak



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE
Erearoaren 4ean, bigarren jaun hartzea egin zuten herriko gazteek.

Franck DOLOSOR

Herriko bestak erearoaren 30ean hasiko dira betiko zikiroarekin. Bortz egunez, herriko besten komiteko gazteek prestaturik animazio andana izanen da. Zango baloin txapelketa, Xiba taldearen gazteentzat herri kirolak eta pilota partidak izanen dira bertzeak bertze. Bertzalde, musikak toki zabala hartuko du aurten ere. Emak Hor fanfarreak, Pierre Lacabek, Pantxika Lacarrak, Niko Etxart-ek, Ikastolako haurrek, Sébastien Zamorak eta Uztaritzeko txarangak alaituko dituzte herriko karrikak. Kantaldiak eta kontzertuak izanen dira gauez Haizean, Koloka, Urgabe, Patxa Mama, Bidekoa eta Entzun taldeekin.

### *Euskara teknikaria*

Hego Lapurdiko herri elkargoak eta Baionako Euskararen Erakunde publikoak hitzarmen bat sinatu dute berriki euskara teknikari bat hartzeko ondoko hilabeteetan. Lehen aldia da herri elkargo batek holako lanpostu bat sortuko duela Ipar Euskal Herrian. Langile hunen lana euskara bizi publikoan eta enpresa munduan zabaltzea izanen da. Langile hunek Herriko Etxeetako langileak, bertzeak bertze Senperekoak, eta enpresetako buruak lagunduko ditu euskarari toki bat emateko eguneroko lanetan. Interesatuak diren presunek harremanetan sartu behar dute herri elkargoarekin edo Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin.

### *Ukrainako dantzarientzat aterpea*

Uda huntan, Gauargi nazioarteko dantza festibalerat etorriko diren ukrainarrak aterpetzeko tokiak miatzen ditu Zirikolatz dantza taldeak. Orotarat, 11 leku falta dituzte oraino. Borondate oneko jendeek Kathy dei dezakete telefonaz 06 75 25 15 44 zenbakirat.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE
Amen bestaren karietarat, familia haundiko bi ama zoriondu dituzte Herriko Etxeko hautetsiek.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

# EZKONTZAK

**Carlos Balda Calahorra** eta **Aitziber Irungarai Altzuri**, Lekunberri eta Leitzakoa, ekainaren 3an.
**Luis Maria Urrutia Oiartzabal** eta **Oihana Cynthia Leveque Tapia**, Oiartzun eta Bordelekoa, Lesakan, maiatzaren 22an.
**Aurelio Legasa Sagaseta** eta **Irene Goia Goienetxe**, Lesaka eta Igantzikoa, ekainaren 17an.
**Jon Ander Garcia de Kortazar Agirrezabal** eta **Amaia Marcos Telletxea**, Donostiakoak Beran, ekainaren 10ean.
**Jose Luis Zelaieta Erasun** eta **Maria Nieves Berasategi Ado**, Berakoak, ekainaren 10ean.
**Jose San Juan Iratzoki** eta **Ainhoa Arotzena Etxeberria**, Bera eta Goizuetakoa, ekainaren 12an.
**Aritz Perez Artieda** eta **Maria Laura Tapia Zozaia**, Berakoak, ekainaren 17an.
**Jokin Ramirez Etxandi** eta **Maria Carmen Karrikaburu Rekarte**, Gartzain eta Erratzukoa, maiatzaren 27an.
**Marcos Cerrada Mercadal** eta **Agurtzane Bengotxea Agerrebere**, Elizondo eta Erratzukoa, ekainaren 3an.
**Jesus Garate Ariztegi** eta **Susana Lizaso Zelaia**, Irurita eta Iruñekoa, ekainaren 12an.
**Mikel Azkarate Tomassone** eta **Ana Elizegi Urrutia**, Aniz eta Elizondokoa, maiatzaren 19an.
**Daniel Navarro Gevers** eta **Manja Jahnke**, Iruña eta Alemaniakoa Elizondon, ekainaren 10ean.
**Modesto Arraztoa Mendikoa** eta **Jaiona Andueza Martiarena**, Irurita eta Doneztebekoa, ekainaren 10ean.
**Ion Etxeberria Bayones** eta **Arantza Eskudero Irigoien**, Elizondo eta Gartzaingoa, ekainaren 17an.



# SORTZEAK

**Oihana Ortiz Ariztimuño**, Leitzakoa, ekainaren 12an.
**Maider Mitxelena Diaz**, Lesakakoa, ekainaren 2an.
**Gotzone Artieda Arrieta**, Berakoa, ekainaren 1ean.
**Amets Lakosta Danboriena**, Anizkoa, ekainaren 12an.
**Lorea Arguelles Gomez**, Elizondokoa, ekainaren 15ean.
**Irati Barrenetxe Sanchez**, Azpilkuetakoa, ekainaren 8an.
**Julen Bertiz Orbegozo**, Elizondokoa, ekainaren 15ean.
**Lorena Ezkurra de Oliveira**, Doneztebekoa, maiatzaren 15ean.
**Paula Zabala Sarasola**, Doneztebekoa, ekainaren 8an.
**Eki Erasun Ezkurra**, Doneztebekoa, maiatzaren 20an.



# HERIOTZAK

**Patxi Arburua Iparragirre**, Zugarramurdikoa, ekainaren 11n, 69 urte.
**Paulina Azpiroz Arnedo**, Leitzakoa, ekainaren 11n, 85 urte.
**Josefa Antonia Arotzena Perurena**, Goizuetakoa, ekainaren 18an, 88 urte.
**Francisco Etxegarai Juriorena**, Gartzaingoa, ekainaren 5ean, 84 urte.
**Aniceta Gonzalez Pinillos**, Elizondon, ekainaren 7an, 81 urte.
**Luis Sorozabal Alberro**, Doneztebekoa, ekainaren 7an, 78 urte.
**Juan Grajirena Urroz**, Urrozkoa, ekainaren 13an, 71 urte.
**Josefa Lertxundi Amondarain**, Lekarozkoa, ekainaren 13an, 87 urte.
**Jose Arribillaga Altzuguren**, Berakoa, ekainaren 15ean, 88 urte.
**Jose Ignacio Petrirena Bayones**, Elizondokoa, ekainaren 16an, 60 urte.
**Martina Iantzi Iturria**, Lesakakoa, ekainaren 19an, 88 urte.


## Rekordatorioak egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58




**Patxi**
**ARBURUA IPARRAGIRRE**

*Ez zara gehiago goizeko 8etan*
*plazatik gurekin abiatuko*
*bainan edozein mendi kaxkora*
*ailatzen garelaik*
*segur izanen gara hantxe,*
*gure ondoan, izanen zarela.*

**ATXURIA MENDI TALDEKO LAGUNAK**


Utzitako argazkia

**Rosa PIZZIO**
*Europako Kenpo Kai txapelduna*

# «Kenpo kai egiten hasi nintzenean ez nuen inondik uste Europako txapeldun izanen nintzenik»

- **Rosa Pizzio, 31 urteko beratarrak, Europako Kenpo Kai txapelketa irabazi zuen ekainaren 10ean Nizan (Frantzia), borrokako semikontaktu modalitatean.**
- **Aitzinetik judoan aritzen bazen ere, urte terdi bertzerik ez du Kenpo Kai kirola egiten, Berako Toki-Ona kiroldegian.**
- **Juan Mari Vidal (Shihan Vidal) du irakaslea. Vidal Munduko txapeldun izana da eta gaur egun, Europako Federazioko presidente eta Munduko presidenteordea da.**

Aitor AROTZENA

Arte martzialak aipatuz gero, gehienei Kung-furen pelikulak edo judo eta karatea datozkigu burura. Inor guttik ezagutzen du Kenpo Kai modalitatea. Halere, Berako Toki-Ona kiroldegian duela bi urtetik honat adin guzietako talde koxkorra kirol hori lantzen ari da, Juan Mari Vidalen eskutik. Izan ere, Europako Kenpo Kai Federazioaren egoitza Oiartzunen da, eta handik pixkanaka kirola ezagutzera emateri ari dira. Horren erakusgarri, ekainaren 10 eta 11n Nizan (Frantzia) jokatu zen Europako txapelketara Beran entrenatzen duten Bortziriak eta Malerrekako sei kirolari joan ziren. Horien artean emaitzarik onena Rosa Pizziok eskuratu zuen, borrokako semikontaktu modalitatean urrezko domina eskuratu baitzuen, finalean Frantziako ordezkariari irabazita. Duela urte terdi hasi zen Rosa kirol honetan, baina horrek ez du erran nahi ongi prestatua ez dagoenik: *«Hasi nintzenean ez nuen uste borrokan arituko nintzenik, beraz ez nuen inondik ere espero Europako txapeldun izan nintzenik bi urte eskasetan, baina egia da astean bortz-sei egunez entrenatzen dudala Shihan Vidalekin. Entrenamendu gogorra izan da, baina merezi izan du, berari esker irabazi dut. Ustekabea ere izan da, nahiz eta ongi prestatua egon, konpetitzeko ordua ailegatzen denean urduritasuna hor dagoelako…».*

**«Denetik daukan arte martzial tradizionala da Kenpo Kai. Jatorriz Txinakoa da, baina Japonian garatu dute. Nik lehen judoa egiten nuen, baina hau hagitzez osoagoa iruditzen zait»**

### «Judoa baino osoagoa da»

Pizziok ez zuen lehendik ezagutzen kirol hau. Baina ezagun batek aipatu zion Berako kiroldegian ematen hasiak zirela. *«Behin ikustera joan nintzen eta segidan engantxatu ninduen. Lehen judoan aritua nintzen, baina Kenpo Kai hagitzez osoagoa da. Denetik daukan arte martzial tradizionala da. Jatorriz Txinakoa da, baina Japonian garatu dute. Ez da ostiko-teknikak edo lurreko-konbatea bakarrik lantzen; medizina, masaia-teknikak, defentsa-teknikak, armak ere lantzen dira…».* Egia da, Kenpo Kai aspaldiko kirola dela, baina 2000. urtera arte ez zen mundu mailan bateratu. 2004an egin zen Munduko lehen txapelketa Japoniako Hamamatsu hirian. Behin Europako txapelketa irabazita, konpetitzen segitzeko asmoa du Rosa Pizziok. *«Heldu den urtean, abuztuan Munduko txapelketa izanen da Japonian eta gustora joanen nintzateke. Tartean bertze borrokak eta txapelketak ere izanen dira. Uste dut urrian dela Espainiako txapelketa, beraz lanean segitu beharra dago!».*

FUTBOLA

# Ane Bergara Superliga eta Kopako txapeldun

## Espanyol-en denboraldi bikaina osatu du beratarrak



UTZITAKO ARGAZKIA

**Espanyol-eko neskak kopako garaipena ospatuz, tartean Ane Bergara beratarra dutela. Aurten liga eta Erreginaren Kopa irabazi dituzte.**

**Xan HARRIAGUE**

Ane Bergara futbolari beratarrak denboraldi bikaina borobildu du Bartzelonako Espanyol taldearekin, Liga eta Kopa irabazi baititu. Ligan, azken jardunaldian txapeldun izatea lortu zuten: Espanyolek bere partida irabazi eta lehenbizikoa zoaien Sevillak berdindu egin zuen Bilboko Athleticekin. Liga irabazteko azken minutura arte esperatu behar izan bazuten, bertze horrenbertze erraten ahal da Erreginaren Kopaz. Finalean, aurrez aurre izan ziren Espanyol eta Barañaingo Lagunak taldea, joan den denboraldira arte Ane Bergararen taldea zena. Arauzko denbora banako berdinketarekin akautu zuten, luzapenean bertze gol bana sartu zuten bi taldeek eta azkenean penalti jaurtiketetan kataluniarrak nagusitu ziren. Ane Bergara kontent zegoen, *«nere lehenbiziko denboraldian dobletea egitea pentsaezina zen. Kopa bertze edozein talderen kontra irabaztea nahiago nuen, baina zer eginen dugu! Tituluak irabaztea garrantzitsua da neretzat»*.

## Baztanek eta Aurrerak ez dute igotzea lortu

Baztanek eta Leitzako Aurrerak Nafarroako Erregionaleko lehen mailan segitu beharko dute hurrengo denboraldian. Biek Preferenterako igoera faserako sailkatzea lortu zuten. Horretarako, bi kanporaketa gainditu behar zituzten, baina Baztan lehendabizikoan kanpo gelditu zen: Giltxaurdin 1-2 galdu zuen Infanzonesen kontra eta Obanosen, markagailuan aitzinetik jarri bazen ere, hiruna berdindu zuen.

Aurrerak, bere aldetik, Beraieinen kontrako lehenbiziko kanporaketa gainditu zuen, kanpoan bana berdindu eta Arkixkilen 3-2 irabazita. Baina bigarrenean ez zuen Mendi gainditu, Leitzan bina egin ondotik, Mendigorrian 2-1 galdu zuten, aurretik jarri baziren ere. Azkeneko 5 minututan jaso zituzten bi golak.

Honela, iaz bezalaxe, bi taldeek ezin izan dute denboraldi ederra igoerarekin borobildu.

TXIRRINDULARITZA

# Hezurrak osorik baina nekaturik bueltatu dira «Quebrantahuesos»tik

## Eskualdeko ordezkaritza zabala izan zen Hueskako proba gogorrean



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

**Iñaki Igoa lesakarra, argazkiaren eskuinaldean, Portalet-en goiti.**

**X.H.**

Zikloturistei zuzendutako proba gogorrik bada, horixe Hueskako Sabiñanigo herritik abiatu eta bertan helmugaratzen den «Quebrantahuesos» famatua da. Txirrindulari afizionatu aunitz horixe prestatzen aritzen dira eta horren erakusgarri, ekainaren 17an izan zen partehartzea: 7.138 txirrindulari. Horietatik aunitz eskualdekoak ziren: errate baterako, Lesakatik 13 txirrindulari joan ziren eta horietako batek lortu zuen eskualdeko txirrindularien artean sailkapenik onena. Bixente Igartzabalek 5 ordu eta 58 minututan egin zituen 205 kiometroak eta 38. postuan sailkatu zen. Beratik ere bertze dozena inguru txirrindulari joan ziren, Sunbillatik, Iturendik, Zubietatik... denak aipatzea ezinezkoa da, baina guzien borondatea eta esfortzua eskertzekoa da. Istripu larriren bat izan zen eta Errioxako txirrindulari bat hil zen erorikoaren ondorioz. Zorionez, inguru honetako inor ez zen kolpatua suertatu.

Beraz, nekaturik bai, baina hezurrak oso-osorik dituztela bueltatu dira gure txirrindulariak probatik. Zorionak!

# AGENDA egunez egun

**MENDI ATERALDIAK**

**SUNBILLA**

**Uztailaren 2an** Sunbillatik Etxebertzekobordara ibilaldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

**ERAKUSKETAK**

**BERA**

**Ekainaren 15etik uztailaren 2ra** Equipo Saisaren grabatuen erakusketa Kultur Etxean asteartetik igandera (igande arratsaldeak itxia).

**ELIZONDO**

**Ekainaren 9tik 29ra** Kepa Arizmendiren margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean.

**LESAKA**

**Ekainaren 19tik 30era** San Ferminetako kartel eta programaren erakusketa Pleno Aretoan 18:00etatik 20:00etara.

**ELIZONDO**

**Uztailaren 1etik 15era** Roke Lasaren margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean.

**OSPAKIZUNAK**

**BERA**

**Uztailaren 1ean** Gure Txokoa elkartearen 75. urteurreneko besta. Xehetasunak 9. orrian.

**LESAKA**

**Uztailaren 1ean** Tantirumairu dantza taldearen 25. urteurreneko bazkaria Koxkontan 14:00etan.

**FERIAK**

**ELIZONDO**

**Uztailaren 8an** Baztango artisau produktuen feria Merkatu Plazan 10:00etatik 14:00etara.

## TELEBISTAKO TXOKOA






UDARAKO SAIO BERRIA

# «Mugatik harat» ibiliko da ttipi-ttapa telebista

Muga artifizialak, muga naturalak, ezarritako mugak... mugak onartu ala ez, hor ditugu. Historiak eta politikak ezarritako mugak alde batera utzita, gizakia, hegan edo igerian ibiltzeko dituen mugak gainditzen saiatu da, grabitatearen legeak jarritako mugak ezabatzen... Uda partean, «Herriz Herri, Bestaz Besta» saioak beteko du ttipi-ttapa Telebistaren programazioaren zati handi bat, baina ortziraletan, «Mugatik harat» saioaren txanda izanen da. Xan Harriaguek egindako elkarrizketen bidez, gure inguruan ohikoak diren kirol edo lanbideetatik kanpo aritzen diren gizon eta emakumeak ezagutuko ditugu: hegazkin edo parapente pilotoak, belaontzi gidariak, eskalatzailek, bizikletako saltariak... Gure ohiko bizimodu *normalaren* muga gainditzen duten *eroak* izanen dira aunitzentzat, baina beraiek gustora dabiltza bere afizioak eta ametsak betez.

**Doneztebeko Sanpedroen ondotik Lesakako Sanferminak.** Uda garaian sarturik, besta garaian ere murgildu da ttipi-ttapa telebista. Hau irakurtzerakoan, Doneztebeko Sanpedroetan murgilduak izanen dira gure kamera eta aurkezleak. Segidan, Lesakako Sanferminen txanda izanen da.

## DISKAK




*Hiriko istorioak*

**JC PEREZ**

*ELKAR, 2006*

Juan Carlos Perezek bere kantu eta musiken moldatzailea izanik, arkitektu baten modura eraikitzen ditu bere lanak, konposizioaren berezko nortasuna esaera musikalaren eraginkortasunarekin zehazki orekatuz. Bere eskutik datozkigun musikak harrigarriak dira beti, forma zein espresibitate anitzekoak, mardul eta joriak, zertzelada klasikoaz tindatutako musika rock-pop-blues-jazz-latin... garaikidea. «Hiriko istorioak» bakarka aurkezten duen laugarren disko honetan, estudioan zuzenean grabatutako hamalau kantu dituzu: bi berri, bertze hameka bere aitzineko disko batzuen bermoldaketak, eta azkena («Astelehen urdin batean»), Itoiz taldearen lehen diskoko kantuaren bertsio gaurkotu bat. Diskoaren lehen unetik, musikaren geometriak harrapaturik gelditzen gara.

## BASERRIA

Datu iturria: **Nafarroako Gobernua**
(Ekainaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 33,00 € (=)

**Zerri gizena**
1,280 € kiloa. (+0,020)

**Zerramak:**
0,480 € Kg/bizirik. (=)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,77 (=)
**1.koa** 3,52 (=)
**2.koa** 3,32 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,89 (=)
**1.koa** 3,64 (=)
**2.koa** 3,41 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 220,00 (=)
idixkoak 276,00 (-12,00)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 225,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,94/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,70 /6,60
8-10 kilokoak: 4,60 /5,30

## JAKIN BEHARREKOAK

# Zergatik eta zertarako jostatu?



Hiru urteak baino lehen haurrak bakarrik jostatzen gozatzen du, jostailuak banatu gabe.

Jostatzea beharrezkoa da, haurrentzat nahiz helduentzat, bakoitzarentzat erranahi ezberdina baldin badu ere. Haurrak jostatu egin behar du, bakarrik edo bertzeekin, jostaiuekin edo jostailu gabe... baina jostatu. Haurrarentzat jokuak funtzio bikoitza du: alde batetik ikasketarena, eta bertzetik, terapeutikoa. Jokuaren bitartez, haurrak bere burua eta garatzen ari diren gaitasun eta ahalmenak probatzen ditu. Jokuan haurra omnipotente sentitzen da, jokuaren bitartez bere autonomia konkistatzen baitu, bera nagusi den mundua eraikiz. Jokuaren bidez haurrak bere beharrak eta nahiak adieratzen ditu; bertzeei zuzenean komunikatu ezin dien beldurrak eta animo-egoerak agertzen ditu; bertze modu batean azaleratu ezin dituen antsietate eta tentsioak deskargatzen ditu; egoera mingarriak eta negatiboak manejatu eta kontrolatzen ditu.

Haurrak ikasteko jostatu egin behar du, baina jostatzen ere ikasi behar du... Eta helduak hori posible izatea egin behar du.

### Helduak ez du haurraren jokua «zuzendu» behar

Adin bakoitzerako jostailu bereziak baldin badaude ere, haurrak horietako edozeinekin jostatzen ahal du, edo eskura duen bertze edozer gauzarekin, beti ere beretzak arriskutsua ez bada. Garrantzitsuena, helduak haurraren jokua ez «zuzentzea» da, modu batera edo bertzera jostatzera «behartuz», eskutartean duenaren «arabera». Haurrak (ttikienak batez ere), gauzak ukitu eta manipulatu behar ditu, nolakoak diren, zer egiten ahal duen eta zertarako erabiltzen ahal dituen bere kabuz deskubritzeko.

Guraso aunitzek egiten duten akatsa aipatzea garrantzitsua da, haurra jokua eta jostailuak konpartitzera «behartzen» dutenean, oraindik haurra joku sozialerako prest ez dagoenean. 3 urteak baino lehen, haurrak bakarrik jostatzen gozatzen du, edo norbaiten ondoan, baina gauzak banatu gabe, eta ez zaio horretara «derrigortu» behar.

### Galtzen eta irabazten ikasi

Haurrak ttiki-ttikitatik jokuan galdu edo irabazten ahal duela ikastea ere nahitaezkoa da, ikasketa hau eguneroko bizimodura eraman eta aplikatzeko prestatuz. Haurrak beti irabazten ahal duela ez zaio sinetsarazi behar, bertzenaz omnipotentzia faltsua elikatuko baitzaio, bere bizimodu indibidual eta sozialean galtzea suertatzen zaionean hainbat arazo sortuko diona.

Jokua oinarrizkoa da haurraren garapenerako; beraz, gurasoen eta bertze senideek jokua, jostailua eta haurraren jostetaren aitzinean duten jarrerak, aztarna sakonak utziko ditu bere pertsonalitatean.

Rakel AMIGO

## LIBURUAK




*Ibaiak nahi duen tokiraino*

**Mikel TABERNA**

*PAMIELA, 2006*

Mariok 40 urte daramatza Gina bere maitalea noiz etorriko zain. Gaztetan bera ezagutu eta maitemindu zenetik, hain zuzen ere. Etxetik alde egitera behartzen dutenean, *Txato* zakur «kakazuarekin» (liburuko narratzailea bera) bidaia hasten du txalupa batean, ibaian beheiti, Karabanalandara iritsi arte. Wallestein jaun inbentoreak bere karabanan gelditzeko tokia utziko die eta orduan ezagutuko dituzte Piko hegazti berezia, eta Gorutxo, eta Xari... Eta hortik, ibaian beheiti, itsasora iritsi arte. Mikel Taberna idazle alkaiagarrak haurrentzako idazten duen lehen liburua da «Ibaiak nahi duen tokiraino». Ilustrazioak, Maddi Irazoki beratarrarenak dira. Mikel Tabernak dioenez, «istorio entretenigarria» egin nahi izan du. Horretarako, orain artekoa «desikasi» egin behar izan du eta «umeen hizkera aukeratu eta orain arteko kontatzeko modua eta hizkera aldatu».

## AGENDA egunez egun

### BESTAK

**AZPILKUETA**

**Uztailaren 6tik 8ra** Sanfermin bestak. Xehetasunak 19. orrian.

**LESAKA**

**Uztailaren 6tik 10era** Sanfermin bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

### ZINEMA

**ELIZONDO**

**Ekainaren 29an** «Iratxoen erregea» filmea eskainiko da Udako Zinea zikloan.
**Uztailaren 4an** «Dick y Jane, ladrones de risa» filmea eskainiko da Udako Zinea Zikloan.
**Uztailaren 6an** «Las crónicas de Narnia» filmea eskainiko da Udako Zinea Zikloan.
**Uztailaren 11n** «La pantera rosa» filmea eskainiko da Udako Zinea Zikloan.
**Uztailaren 13an** «Harry Potter y el cáliz de fuego» filmea eskainiko da Udako Zinea Zikloan.
Emanaldi guziak 22:30ean Merkatuko Plazan.

### KONTZERTUAK

**AMAIUR**

**Uztailaren 1ean** Elizondoko Abesbatza eta Jose Manuel Azkue organujolea, 20:00etan parrokian.

**SARA**

**Uztailaren 4an** Txími Txama taldeak kantaldia eskainiko du 21:30ean elizan.
**Uztailaren 11n** kantaldia elizan Larrun Kanta taldearekin, 21:30ean.

### IKASTAROAK

**ETXALAR**

**Uztailaren 21,22 eta 23an** Reiki hastapen ikastaroa Manu Garcia irakaslearen eskutik Mokorrekoborda baserrian. Informazioa 617185990 telefonoan.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

# MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 6 € ordaindu behar da
Ttipi-ttapa telefonoan eni agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin)
6 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304625 kontuan sartu

00-34

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak

**ADOS**

• **ELIZONDO.**
- Apartamentu, pisu eta unifamiliarra salgai.
• **BIDASOA**
- Unifamiliarra, borda eta baserria salgai.
• **DONEZTEBE.**
- Unifamiliarra 2.000 m²ko partzelarekin salgai.
- Eraikuntza berriko pisuak salgai.
- 2. eskuko pisu erreformatua salgai. Aukera ona.
- 10 minutura: baserria, borda eta lurrarekin salgai. Borda ura eta argiarekin.
• **BAZTAN.**
- Erreformatuak eta erreformatzeko dauden bordak salgai.
• **ARIZKUN.**
- Nabe industrialen promozioa.
• **PROMOZIO BERRIAK:**
• **NARBARTE.** 2 eta 3 gelako pisuak aparkaleku eta trasteroarekin salgai.
• **IGANTZI.** Pisu eta apartamentuak salgai.
INFORMA ZAITEZ!
**948 451 841 / 948580705**
**www.ados-inmobiliaria.com**

**ANZABAL**
*Santiago 15 - ELIZONDO*
*Tfnoa: 948 580804*
*anzabal@anzabal.com*

**BAZTAN-BIDASOA**
Lur, etxe, baserri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.

**BAZTAN-BIDASOA**
Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

**ETXEBIZITZAK**
### 103 Errentan eman

**IRUÑA.** Unibertsitate Publikoaren ondoan neska ikasleentzako pisu mobleztatua alokatzen da. ☎ 630 131129.

**DONEZTEBE.** Pisu mobleztatua errentan ematen da. Egoera onean eta toki lasaian. ☎ 678 633562.

**ELIZONDO.** Pisua errentan emateko. Mobleztatua eta kalefakzioa. ☎ 676 707620 (arratsaldez).

**ETXEBIZITZAK**
### 104 Errentan hartu

**LESAKA.** Pisu bat hartuko nuke errentan. ☎ 657 708866.

**DONEZTEBE.** Pisu ttiki bat errentan hartuko nuke. ☎ 628 800865.

**ETXEBIZITZAK**
### 105 Etxe konpartituak

**IRUÑA.** Bi ikasle behar dira pisua konpartitzeko. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. ☎ 675 714221.

**ZERBITZUAK**
### 208 Bertzelakoak

**Testuen itzulpenak** egiten dira, gazteleratik euskarara eta alderantziz. ☎ 678 232798 (Ainhoa).

**BORDA**
Pladur lanak
Tel-Faxa:
Mug:
ERREFORMAK
DEKORAZIOA
SABAI MODULARRAK
ISOLAMENDUAK:
sua · zarata · hezetasuna

**LANA**
### 301 Eskariak

**Emakume euskalduna** eskaintzen da interna edo externa lanean aritzeko, zaharrak zaintzen, sukaldari laguntzaile edo garbiketarako. ☎ 635 204339 (19:00-21:00).

**Neska batek** uztailean eta abuztuan lan eginen luke etxeko-lanetan edo kamarera gisa. ☎ 948 452258.

**Emakume euskalduna** helduaeta esperientziarekin eskaintzen da adinekoak etxean zaintzeko, etxeko lanak, ahal dena eginez. Astelehenetik ortziralera 8:00etatik 16:00etara. ☎ 626 088609.

**Emakume batek** etxeak garbitzen lan eginen luke Doneztben, goizez 4 orduz. ☎ 628 800865.

**Emakumea** eskaintzen da hotel, jatetxe edo bertze lanetan aritzeko, gauez hobe. ☎ 690 757814.

**Lan bila zabiltza?**

| LAN ESKAINTZA | LAN ESKAINTZA |
|---|---|
| IKASTETXE PUBLIKOAK | OSPITALAK behar dute |
| - Garbitzaileak<br>- Sukalde laguntzaileak<br>- Sukaldariak<br>- Atezainak | - Zelariak<br>- Erizain laguntzaileak<br>- Laborategia<br>- Fisioterapeutak |
| UDALETXETAN LANPOSTU HUTSAK | UDALETXETAN INKORPORAZIO BERRIAK |
| - Admin. laguntzaileak<br>- Harreragileak<br>- Telefonistak<br>- Informatika | - Lorezainak<br>- Elektrizistak<br>- Iturginak<br>- Langileak<br>- Gidariak<br>- Peoiak |

**Presta zaitez. Informazioa dohain.**
**948 199 596**

**LANA**
### 302 Eskaintzak

**DONEZTEBE.** Bixen ostatuan larunbat eta bestetan gauez lan egiteko kamarero bat behar da. ☎ 948 450383.

**BERA.** Saltzailea behar da Renault tailerrean lan egiteko. Informatika, frantsesa eta euskara ezagutzak dituena. ☎ 948 630621.

**Zurgindegirako langilea** behar da. Esperientziarekin. ☎ 948 451906.

**IRUN.** Ola sagardotegian lanean aritzeko kamarera behar da. Euskalduna bada hobe. Nahi badu fijo egiteko modua bada. ☎ 659 285620.

**Udarako kamarera** behar dugu, Behobiako mugan, taberna batean. Kondizio oso onak. ☎ 629 472589.

**Soroslea** behar da uztaila eta abuztuan lan egiteko Etxalarko Bentatan. ☎ 948 635000.

**FDF**
OPOSICIONES
**Irakaslego permanentea**
**Esperientzia zabalarekin**
**Klasera agertu behar da**
**ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA**
**FORUZAINA**
**UDALTZAINA**
**ZELARIA**
**BESTEAK...**
**Gaitegiak enkarguz egiten dira**
**IRUÑA: Singular Eraikina**
**PíoXII etorb. 1 behea**
**Tel: 948 22 71 23**

**BERA.** Jatetxe batean kamarera behar da uztaila eta abuzturako. ☎ 948 630392.

**BERA.** Sukaldari laguntzailea behar da jatetxe batean. ☎ 654 385363.

**Gidariak.** Abudo sartzeko Udaletxe eta Nafarroako Gobernuan. ☎ 948 199596.

**Haurtzaindegiak.** Bete behar dute: zaindariak eta haur hezitzaileak. ☎ 948 199596.

**Bezeroari arreta.** Aireportuetarako lanpostu libreak. ☎ 948 199596.

**Lanpostu hutsak.** Administrari laguntzaileak, harreragileak, telefonistak, udaletxetarako informatika. ☎ 948 199596.

**Elbarri fisikoak.** Erakunde publikoetan erreserbatutako lanpostuak: gidari, garbitzaile, atezain… ☎ 948 199596.

**Ospitalak.** Bete behar dute: zelariak, erizain laguntzaileak, laborategia, fisioterapeutak. ☎ 948 199596.

**Inkorporazio berriak.** Lorezainak, elektrizistak, iturginak, langileak, gidariak, Udaletxetarako peoiak. ☎ 948 199596.

**Lan egin** Autoeskolako monitore. Lan eskari handia. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Haur hezitzaileak.** Lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Ikastetxe publikoek.** Behar dute: garbitzaileak, sukalde laguntzaileak, sukaldariak, atezainak. ☎ 948 199596.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Volkswagen Polo TDI** autoa salgai. 2001eko apirilekoa. Extrak, gris plateatua. Prezioa 5.750€. ☎ 948332883.

**Gas-Gas Enducros** motoa salgai. 2004koa. Egoera oso onean. Gutti ibilia. 250 cc. ☎ 690 181644 (18:30etatik aurrera).

**KTM motoa** salgai, 2004koa. 250 cc. Egoera onean. ☎ 609 028584.

**Fiat Brava** autoa salgai. Egoera onean. 1999koa. ☎ 948 580666.



**Galloper Super Exced** 2500 cc salgai Lesakan. ☎ 618 963156.

**Suzuki Vitara** salgai, SS-AU matrikuladuna, 85.000 km. Extrak. Prezioa: 4.500 euro. ☎ 666 819810 (arratsaldetan).

TALLERES SANTESTEBAN
✆ 948 450282 • DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-18 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR
ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK
EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO…
ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

MENDAUR MOTOR
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Mitsubishi DID 3-5 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Opel Zafira, Galloper 3-5 ate, Opel Frontera Sport, Opel Vectra, Renault Scenic 4x4, Terrano II 3 ate, Suzuki Ignis 4x4 eta Citroen Evasion 2.0 HDi.
SUZUKIAK ETA VITARAK, ALKERAN

## ANIMALIAK
### 602 Salerosketak

**Lastoa** salgai. Pakete txikiak eta handiak. Garagarra, garia eta oloa. Urte guzian serbitzen da. ☎ 943 366040 edo 607 457004.

**Basurde ehizarako** sei zakurkume ar salgai. Sabueso frantsesa arrazakoak. 3 koloretakoak. ☎ 639 922256.

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

**Corbero markako garbigailua** salgai, egoera onean. Gutti erabilia. ☎ 687 950373.

Egoera onean dagoen **ostatuko tresneria** salgai: kafetera, kamara, ontzi garbigailua, izotz makina. Prezio interesgarria. ☎ 667 708889.

## DENETARIK
### 703 Bertzelakoak

**Alemaneko klaseak** hartuko nituzke Baztan edo Malerrekan. ☎ 676 035845.







Bidali
ttipi-ttapa
herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

✆ (+34) 948 635458


SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA
BISITA EZAZU
AMAIVR
vegasa
Modelo berriak:
rustikoak • modernoak • praktikoak
Entzimerak: silestone • granito • corian ...
Elektrogailu nazionalak eta alemanak
Rosa Seminario 13 • Tel.:948 450 400 • DONEZTEBE


zer da ttipi-ttaparen telefono gida?
zenbat balio du gidan anuntzio bat sartzea?
nola dago antolatua?
bertan azaltzeko zer egin behar da?
2006
Telefono gida
Inguru honetako etxe guzti-guztietan sartuko den Telefono Gidan,
Ofiziale, saltoki eta lantegi guzti-guztiekin batera agertzeko
Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatua
Urte osoan eta momentu guzietan zure bezeroak kontsultatzeko erraxa
Zure iragarkia sartzeko aukera eta tarifa desberdinak dituen Gidan
Baztan · Bertizarana · Bortziriak · Leitzaldea · Malerreka · Urdazuri
...azalpen eta informazio gehiago: 948 635 458 telefonoan

# Lasao

egurrezko altzaria

"Altzari arinak, zuretzat eginak"









www.lasao.com